



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2016ko irailaren 1a | XXXVI. urtea | 669. zenbakia



Unai IANTZI

Nafarroako koxkor biltze txapeliduna → 44

Herrietako bestak

Arraioz, Elbete, Eratsun, Oiz eta Sara

ETXALAR → 17

Bi herritar Munduko Kenpo Kai txapelketan

IGANTZI → 19

Liburutegi zerbitzua igerilekuan abuztu eta irailean

LEITZA → 29

Naturbideko maratoia eta maratoi erdia irailaren 11n

KIROLA → 44

Euskal herrialdeetako txapelketa irailaren 3an

Haur Hezkuntzako 6 ikaslerekin



Duela 33 urte (1983) itxi zuten, «haur kopuru tikiia zela eta Elizondotik hurbil zegoela» argudiatuz.

ERREPORTAJEA → 4-5

Lekarozko eskola berriz irekiko dute aurten

IXURITABELTZ BAZTAN GIJES FESTIBALA

irailak 2-3 Lekarozko aterpean

Baztango Blues Elkarteak antolatua | → 32

Leire ELZAURDIA | Boluntario lanetan Kamerunen

Gazte beratarra Kamerungo Pigmeo Baka etniako kideen integrazio soziala lantzen eta osasun kanpainen laguntzen ibili berri da.

ELKARRIZKETA → 3

KIROLA → 30

Aresoko IX. Mendi Martxa irailaren 4an

Aresoko plazatik abiatuta 21 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek. Tartean, Ulizar, Urkita, Pagozelai eta Lau mugarietatik (Guratz) pasako dira.



Baztan-Bidasoak marka turistiko berria sortu du

Uren Bailarak markarekin, baliabideen mapa egin dute udalek eta Cedema-Garalur-ek → 33

ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra

Elkarrekin ikastearen xarma



Rakotz Brücke, Alemania

INGELESEKO, FRANTSESEKO ETA ALEMANEKO IKASTARO PERTSONALIZATUAK

- Haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat ikastaroak
- Ordu-tegi malgua, astelehenetik larunbatera
- Sorterriko irakasleak
- Talde mugatuak (9 ikasle gehienez)
- Ikastaro estandarrak, trinkoak, klase pribatuak
- Enpresentzat ikastaroak eta online ikastaroak. Itzulpen zerbitzuak
- Azterketa ofizialetarako prestakuntza
- Ikastaroak atzerrian

Datak: 2016-2017 kurtsoaren hasiera: 2016/09/19

Matrikula: 2016/09/16 baino lehen izena emanez gero, **MATRIKULA DOHAINIK!**



Koskontako bidea, 11 behe - LESAKA Tel. 948 637 135 ePosta. info@acornlanguages.com web. www.acornlanguages.com



eraginkorra eta atsegina
eficaz y agradable



freskoa eta goxoa
fresco y sabroso



eus kara ren kilika

ikas eta ari / aprende euskera

alaita eta dibertigarria
alegre y divertido



bizigarria eta praktikoa
estimulante y útil



ikauskaltegiak.eus

Matriculakate

euskara
errazago
egiten
ika

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

Lesakako Matxinbeltzanean

Tel. 948 637 796

bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

MALERREKAKO EUSKALTEGIA

Donezteben, Rosa Seminario, 6

Tel. 948 451 555

malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

LEITZA, IMOTZ-BASABURUA eta ARAITZ-BETELUKO EUSKALTEGIA

Leitzako Euskal Herria Plaza, 1

Tel. 948 610 776

leitza@ikaeuskaltegiak.eus



euskara
errazago
egiten
ika

www.ikaeuskaltegiak.eus

Euskara errazago egiten

Matrikula zaitetz irailaren 30a baino lehen

Berteen ahotik entzundako bizipenak, bere azalean bizitzeko asmoz joan zen uztailean Leire Elzaurdia (Bera, 1993) Afrikara. Zerca y Lejos Garapenerako Gobernu Kanpoko

Erakundearekin aritu da lanean Kamerunen. Pigmeo Baka etniako kideekin integrazio soziala landu du eta osasun kanpainak egin dituzte. Esperientzia zoragarria izan dela dio

«eman baino gehiago jaso dut bueltan». Lanerako indar eta gogoz bueltatu da, «hurbiletik edo urrunetik ematen den laguntza guztia behar delako».

Leire ELZAURDIA MENDIBERRI | Boluntario lanetan aritu da Kamerunen

«Keinu ttikiak eginez, aldaketa handiak gerta litezke munduan»

E. IRAOLA | BERA

Nolatan erabaki zenuen boluntario izatea?

Umetatik erakarri nau gaiak. Oroitzen naiz ttikitari irakasle batek Afrikan bizi izandako esperientziak kontatu zizkigula. Noizbait ni ere laguntzera joanen nintzela erabaki nuen orduan eta ideia hori buruan izan dut lortu dudana arte. Madrilen optika eta optometria ikasketak egin ditut eta Unibertsitateko irakasle batek eman zidan Zerca y Lejos Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak egiten duen lanaren berri. Udan Kamerunera joateko boluntarioak behar zituztela jakin nuen optikako proiektu baterako eta beraiekin lanean hasi nintzen. Urte osoan prestatzen aritu ondok uztailean maleta egin eta Kamerunera joateko aukera izan dut.

Zein izan da zuen egitekhoa?

Pigmeo Baka etniako kideekin lan egin dugu, Kamerunen egoera gogorrean bizi den etnia da. Bi egun pasa genituen Yaunde hiriburuan eta gero hegoaldera joan ginen Bengbis, Minton, Djoum eta inguruko herrietara. Integrazio soziala landu dugu beraiekin eta osasun kanpainak egin. Malaria, alkoholismoa, tuberkulosia, HIESa, desnu-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kamerunen Pigmeo Baka etniako kideekin aritu da lanean hilabetez.

trizioa... izan ditugu hizpide eta eritasunak azaldu eta prebentziorako aholkuak eman dizkiegu, ezjakintasuna handia baita. Osasun azterketa horien baitan ikusmen azterketak ere egin dizkiegu bertako oftalmologo baten laguntzaz.

Zer topatuko zenuela espero zenuen eta zerekin egin duzue topo?

Afrikak sorpresa handi bat eman dit. Herralde hau tristezia eta pobreziarekin lotzen nuen orain arte eta errealitatea gordina bada ere, bizitza benetan, zoriontsu bizitzen dakitela erakutsi didate, amets egiten eta amestutako hori lortzeko borrokatzen ba-

IKASITAKOIA

«Esperientzia honek pertsonalki eman didana ezin da hitzez adierazi, bizi egin behar da. Hasieran, etxean motxila prestatzerakoan gauzak eta gauzak sartzen hasten zara baina gero konturatzen zara erdiak baino gehiago soberan dituzula. Hilabete honetan pertsonalki asko ikasi dut; eman baino gehiago jaso dut bueltan».

dakitela erakutsi didate. Mutiko batek kontatutako istorioa gogoan dut. Ia egunero 3 orduz ibiltzen zen 7 kilometrotara zegoen eskolara joateko. Distantzia ez zen oztopoa, handitzen zenean medikua izan nahi zuelako.

Une gaziak ere biziko zenituen?

Tartean une zailak ere bizi izan ditugu bai, desnutrizio egoera larria zuten haurrak zeudela ikustean adibidez. Gogorra zen ikustea pisatu eta muga guztiak gainditzen zituztela. Inpotentzia handia sentitzen duzu orduan, amorrua, tristura... Baina momentu gazi horien ondok, gozoak zetozen haurrekin jolaste-

an ahoan duten irribarra ikustea, euren dantzak, alaitasuna..

Kamerungo eta hemengo errealitatea eta kultura desberdinak dira?

Beste pentsaera bat dute, goiz ezkontzen dira eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunak nabarmenak dira. Gizonak nahi adina emakumekin ezkon litezke, emakumeak gizon bakarrekin. Normalean mutikoak dira eskolara joaten direnak eta neskek etxean gelditu behar izaten dute. Erlijioak ere indar handia du.

Zer ikasi duzue?

Esperientzia honek pertsonalki eman didana ezin da hitzez adierazi, bizi egin behar da. Hasieran, etxean motxila prestatzerakoan gauzak eta gauzak sartzen hasten zara baina gero konturatzen zara erdiak baino gehiago soberan dituzula. Hilabete honetan pertsonalki aunitz ikasi dut; eman baino gehiago jaso dut bueltan.

Itzuliko zinateke?

Esperientzia behin eta berriz errepikatuko nuke. Hilabete zoragarria izan da. Urtean zehar Madriletik lanean aritu naiz eta orain Kamerundik lanerako gogo eta indar gehiagorekin bueltatu naiz. Hurbiletik edo urrunetik ematen den laguntza guztia behar delako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Goitiz beheiti, Maddi, Nebai, Ainhize, Irati, June eta Maddi.

HEZKUNTZA → HERRI ESKOLA BERRIA

Lekarozko herri eskola atepak irekitzeko prest

Hiru eta bost urte arteko sei ikaslek hasiko dute ikasturtea irailaren 7an

Hainbat hamarkadaz itxita egon ondotik, Lekarozko eskolak atepak irekiko ditu berriz. Ikasturteko lehenbiziko egunean, herriko hainbat gurasok bultzatu duten proiektua

jarriko da martxan. Luzea izan da orain arterako bidea: huts egindako negoziazioak, elkarlana, erlojuaren kontra egindako lanak.... baina guztien gainera ilusioa gailendu da.

Eneritz IRAOLA

Zenbakien dantzan, gurasoen alde erori zen balantza eta sei ikasleekin Lekarozko Herri Eskola irekitzeko baimena lortu zuten urte hasie-

ran. Proiektu sendoa aurkeztu zuten eta Hezkuntza Departamenduan jende berria sartzeak ere eragina izan duela uste du Jon Badiolak, guraso elkartearen kidea. Izan ere

ez da ahaztu behar, duela bi urte eskola irekitzeko saiakera egin zutenean ezezkoa jaso zutela, «denok badakigu bost haur baino gutxiago baldin badaude eskola itxi

egiten dela, baina ez dago finkatuta eskola irekitzeko gutxieneko ikasle kopururik».

AMETSA ERREALITATE

Duela bi urte pasatxo hasi ziren proiektu honetan lanean, «haurrak herriko eskolara eramatea amesten genuen guraso talde bat bazela ikusi genuen. Talde ttikia baina herri eskolen balioa argi duena». Pixkanaka pixkanaka joan dira proiektu-

tua garatzen, «ahots guztiak entzuten saiatu gara. Guraso, ikasle eta irakasleen premiak biltzen». Nafarroako Gobernuaren proiektua aurkeztu zutenean ere, argi adierazizuten «hezkuntza komunitate guztiaren iritzia kontuan hartzen zela bertan». Guztiak bat-egitea lortzea izan da Jonen ustez lorpenik handiena «borondate handia egon da alde guztietatik eta horri esker lortu dugu He-

«Haur Hezkuntzako 6 ikasleekin hasi eta lau urtean 13-14 ikasle izatea aurreikusten dugu».

ri Eskola izatea. Eskerak eman behar zaizkie Baztango Eskola ttikietako irakasleei izan duten inplikazioagatik eta baita Udalari, Itziar Alemani eta Miren Meoki alkateari ere erakutsitako babesagatik».

ESKOLA ZAHARREAN ESKOLA BERRIA

Beharrezko baimen guztiak lortu ondotik, erlojuaren kontrako borroka hasi zuten «maiztzean lortu genituen oniritzi guztiak eta irailera-ko eskola prest izateko gogotik lan egin behar izan da».

Lekarozko eskola zaharra zegoen toki berean moldatu dute eskola berria «hortaz, ez da obra estrukturala izan, oinarria hor zegoen». Horrek asko murriztu ditu gastuak «azpiegitura aldetik, nahiko baldintza onetan zegoen erakina. Gas naturala jarri, instalazio elektrikoak egin, isolamendua hobetu, zoruak berritu eta komun berriak egin dira. Horretaz gain, biltegia ere egokitu da erabilera berriak emateko».

Eskola diseinatzeko orduan, egungo premiari eman zieten lehentasuna «Haur Hezkuntzakoak dira sei haurrak eta hortaz, psikomotritate lantzeko gela bat edukitzea funtsezkoa iruditzen zitzaigun haurren garapenerako». Horretaz gain, gela handiago bat ere badute, «beharren arabera moldatu eta bitan zatitu litekeena».

ZERBITZUAK

Jangela zerbitzua ere eskainiko da «herriko ostatuari esker, premia hori betetzea lortu dugu. Hiru haurrek bertan bazkalduko dute, prezio oso konpetitibo batean eta haurrak eskolara eramateaz ere berriak arduratuko dira».



PREMIEI ERANTZUNEZ

«Hezkuntza komunitate guztiaren iritzia bildu dugu proiektu honetan eta egungo premiak izan dira lehentasuna. Haur Hezkuntzakoak dira sei haurrak eta psikomotritate lantzeko gela bat edukitzea funtsezkoa iruditzen zitzaigun haurren garapenerako».

Jon BADIOLA

Lekarozko gurasoa, irakasle eta psikomotrizista



UTZITAKO ARGAZKIAK

1- Eskola kanpotik . 2- Eskola barruko geletako bat, erabileraren arabera egokitu litekeena.

ESKOLA TTIKIAK, PROIEKTU HANDI BATEN PARTE

Lekarozko Herri-Eskolak sei ikasle izanen ditu 2016-2017 ikasturtean. Guztiak gainera, Haur Hezkuntzako ikasleak dira: lau urteko lau, hiru urteko bat eta bost urteko bat. «Nahiko talde homogeneoarekin hasten gara lanean eta horrek lagundu egiten du» azaldu digute gurasoek. Etorkizunera begira ere baikor solasten dute «egia da, hiru lau urte dituzten haur guztiak ez direla eskola horretan egongo baina jaiotzen ari diren guztiak herriko eskolara ekartzeko asmoa dute. Hala, lau urtean 13-14 ikasle izatea aurreikusten dugu».

BAZTANGO ESKOLA TTIKIEN BAITAN

Lekarozko Herri Eskolak lehenbiziko pausoak ez ditu bakarrik ematen «Baztango eskola ttikien barruan sartuko da gure eskola. Haiekin koordinatuko gara eta proiektuak lan egingen dugu». Etorkizunean, eskola unitario bat izatea litzateke asmoa «Haur eta Lehen Hezkuntzako klaseak ematen lirateke bertan. Irakasle eta zuzendari lanak egingen ditu Edurne Arrietak eta zerbitzua osatzeko irakasle ibiltariak ere izanen dira».

Baztango eskola ttikien baitan egotea funtsezkoa iruditzen zaie «horrela hartu-emanak sustatzen direlako. Lehen Hezkuntzako haurrak astean behin biltzen dira Irurritako eskolan eta horrela badute aukera poliki-poliki bailarako beste haur guztiak ezagutzeko. 6. maila bukatzen dutenean



UTZITAKO ARGAZKIA

Lekarozko Herri Eskolako haur eta gurasoak.

badute harremana beraien artean eta sozializazioa errazagoa izaten da».

ILUSIOA GAINEZKA

Egutegia begien aurrean, zain dira denak «gogotik lan egin behar izan dugu, baina posible izan da azkenean». Motxila bizkarrean eta ilusioa barrenean, ikasturtearekin batera, bide berri bat ere hasiko baita txirrinak lehenengoz jotzen duenean.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Basurde bestalariak

Besta egitera atera gara. Kotxea aparkatu, eta *La ostia, horko kartel hori, sasitara botatze-ko tentazioa*. Ale ba, lauen artean indar pixko bat egin eta sasi gainetik bota dugu. Hasi da hasi, gure besta. Lan hunek egarria eman digu, eta behin ostatuan... *Ah, komunak, ze tentazioa hori ere...* Ale ba, komunean sartu naiz eta bi indar kolpez, kri-kra, ispilua puskatu dut. Gero kuadrillakoei kontatu, eta ze ajatak egin ditugun! Burua ia lainotua daukat pixka bat, nere *punttua* hartzen ari naiz, eta dantza egiteko gogoia sartu zait: salto, bulka, besoak zabaldu, zakarkeri... badirudi ingurukoak molestatzen ditudala pixka bat, baina izorra daitezela. Ondokoa lurrera erori da... hau okasioa!: ni bere gainera! Behin kanpoan asperzen hasi gara, eta batek *herri-kirolak* proposatzen ditu. Lehenbizi: zabor-kontenedorea erreka botatzea. Hau talde lana da, eta elkarrekin bultza egin, txapelkun gara: hantxe utzi dugu erreka erdi-erdian kontenedorea. Hurrengo segalari lana da; ez dugu segarik, baina eskuak baliatuz hondoko loretoak *garbitu dugu*. Ez dugu halako bestalariarik nahi! Basurdeak bezalakoak baldin bazarete: zoazte mendi punta batera besta egitera.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Udako sugetzara izendegian

Nahiz eta aurten Olinpiadak jokatu diren berri eskasiaren garaia izaten da eta hortaz, udako *sugetzara* sortu behar izaten da medioetan: Garrantzi handiegirik gabeko berrixka, ibili eta buelta erabiltzen dena. Aurtengoan izendegiak eman du gaia: Madrilen ezin *Lobo* jarri semeari (*León* edo *Apapucio* bai), Zumaian, ezin *Lur* izendatu semea (alaba balitz bai, Euskaltzaindia *dixit*).

Nabarmentzekoak



Joseba LASARTE
Beran danborrada berriz ere

Joan den urteko lehen entsaioaren ondotik, duela hamarkadabatzuk galdu zen danborrada berreskuratu zuten Berako bestetan. Joseba Lasarte izan zuten gidari 48 danborjolek.



Iñaki MIHURA
Berako gau krosean garaile


Arraioztarrak irabazi zuen Manttaiek hirugarren aldiz antolatutako lasterketa, Fernando Etxegarai eta Dani Iparagirrearen aitzinetik. Nesketan, Ane Eltzaurdia hirugarren izan zen.



Ane PETRIRENA
Munduko txapelketan finalista

Polonian jokotutako Munduko junior mailako atletismo txapelketan parte hartu zuen sunbildarrak. 4x100 lasterketan lehen aldiz finalera sartu eta Espainiako errekorra hobetu zuten.

Atzera begira → 2001-IX-6 / TTIPI-TTAPA 309 zk.



Joxe Landa eguraldi gizonarekin solasean

Sortzez itziartarra, urteak daramazki Joxe Landak eguraldi-gizon bezala lanean, tartean Xorroxin eta Karrape Irratietarako. Duela 15 urte TTIPI-TTAPARI eskainitako elkarrizketan zioenez, «gure burua nolabait salbatzearen, iragarritakoaren gain ez garela konprometitzen esan ohi dugu», zioen. «Belarrak mozteko garaian daukat kezkarik gehien, gehienetan asmatzen dugu eta hori da gure pribilegioa, baina Euskal Herriko eguraldia den bezala izanda, batzutan txarreak ere egiten dizkigu». Euskal Metereologoen Elkarteak sortu berria zuten orduan, eta «euskal sare metereologikoa osatu nahiko genuke, estazioak ezarritz».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

Kolaborazioak

Malba Tahan

Esteban IRUSTA MALLEA

Malba Tahan, ezizenez ezaguna, Rio de Janeiro 1895an jaio zen eta 1974n hil. Egiatzko izena Julio César de Mello y Souza zuen, baina bere ezizena ofizialki onartua izan zen. Ospe handiko idazlea izan zen, batez ere matematiketan. Futbolari batek beste fama lortu zuen matematika irakasle bakarra izan zela diote. Ipuin-liburu asko idatzi zituen, baina ospetsuenak matematikaz lotutakoak dira. Tartean eta ezagunena: "El hombre que calculaba". Bere us-tez, Brasilgo irakasleen irakasbideak, matematikan batez ere, ez ziren egokienak. Bere esaldi hau ezaguna egin zen: «Matematika-irakaslea sadikoa da. Hau da; ikasleak sufritzen ikustea, ikasgaiak korapilatzea, konplikatzeko maite duena». Hori adierazi zuenetik urte batzuk pasa dira, eta irakasteko metodoak asko aldatu dira. Behar bada ez berak nahi beste, zeren bere metodoak oso bereziak, oso orijinalak ziren. Ospetsua da bere ipuin batean, hiru anaiak zuten arazoari ematen dion irtenbide orijinala. Hiru anaiak gurasoengatik 35 gamelu jaso zituzten herentzian. Zaharrenak erdiak jaso behar zituen. Bigarrenak herena, eta gazteenak bederatzirena. Baina beraien artean ez ziren konpontzen. Zaharrenari 17 gamelu eta erdi tokatzen zitzaion. Bigarrenari 11 eta zerbait gehiago. Gazteenari 3 eta beste baten zatia. Eztabaida gogorra zuten, irtenbiderik aurkitu ezinik. Une horretan agertzen da gure matematikoa bere lagun batekin, eta jabeturik hiru anaiak konpondu ezinik jarraitzen zutelara, berak konponketa erraza zuela agertu zien. 35 gameluei beraiek zermatena gehituko zien, eta horrela 36 izanik, denak irabazten aterako ziren. Laguna, ordea, kezkatuta gelditu zen gamelu gabe bidaiatu ezinik geldituko zirela pentsatuz. Ez arduratzeko esan zion lagunari eta 36rekin, zatiketa samurra eginez, emaitza zehatzak ateratzen ziren. Anai zaharrenak, zatiketa berriekin, 17 gamelu eta erdiaren ordez 18 gamelu izango zituen. Bigarrenak 11 gamelu eta beste baten zatiaren partez, 12 gamelu bereganatuko zituen. Eta hgazteenak ere pozik egoteko arazoak zituen; 3 gamelu eta zati baten ordez, 4 hartuko zituen. Hiru anaiok, beraien arteko haserreak alde batera utziz, pozik gelditu ziren, eta zer esanik ez bi lagunak egoera berriarekin; eraman zuten gamelu baten ordez, birekin gelditu zirelako. Pozaz aparte, banaketa berri honek txunditurik utzi zituen hiru anaiak eta baita bere laguna ere. Baina matematika-eragiketarik emaitza horiek ematen zituen. $18+12+4=34$ dira, eta beste 2 gehiago gelditzen zirenez, laguna bere gameluz gelditu zen, eta bestea beretzat hartu zuen. Denak pozik gelditu ziren egindako banaketaz, eta horrela akabo ziren anaien arteko haserreak. Beste aldetik, bi lagunak bere bidea jarraitu zuten, baina orain bakoitzak bere gameluarekin. Ipuin honek zer pentsa ematen du. Askotan, bizitzan, irtenbide samurra duen arazo baten aurrean ez dakigu zailtasunak saihesten eta beste batzutan geure burugogorkeriek ez digute uzten irtenbide samur bat aurkitzen.

OSASUNEZ

Zer egin kaparrei aurre egiteko?

Leire AZNAREZ ALVAREZ (Doneztebeko Osasun Zentroa)

Kapar edo akainak pertsonaren gainera ailegatuta, toki bero eta hezeetara joaten dira; besapeetara, iztertxokoetara zein buruko larruazalera.

Prebentzio-neurriak:

Galtza luzeak eta atorra mahukadunak jantzi baso edo belar luzeko larreetan.

Galtza-barrenak galtzerdien barrenetik sartu, kaparrak sartu ez daitezten.

Atorra galtza barrenetik sartu, arropa argia jantzi (kaparrak ikus daitezten) eta zomorroak uxatzekoa bota. Halako tokietan, maiz begiratu arropara eta azalera, kaparrak ba ote duzun ikusteko.

Kaparra kentzeko, hauxe egin:

Burutik hurbil heldu kaparrari, pintzekin. Beharrezkoa bada, paperezko eskuoihal bat erabili.

Kanpoaldera tiratu, baina mugimendu xuabe batekin, kaparra zanpatu gabe. Kontuz egin, kaparraren burua azal barrenean gelditu ez dadin. Gero, urez eta xaboiz garbitu azala, baita eskuak ere.

Aste pare batez, begiratu Lymeren eritasunaren sintomarik agertzen ote den (alde hori gorritzea, gripe moduko zerbait).

Kaparra osorik atera ez bada, joan Osasun Etxera.

Intsektuen ziztada eta ausikiak

Zein da zomorro baten ziztada ondoko erreazio normala?

Sintomak: handitua, gorritzea, mina eta beroa.

Zainketa orokorrak:

Ez arraskatu, zauria egin dezakezu.

Erleak egina bada, begiratu eztena azalean gelditu den. Hor bada, igurtziz kendu, ez estutuz edo pintzekin. Urez eta xaboiz garbitu eta beroa jarri (beroak toxinen indarra ahultzen du).

Eltxoak edo ezparak egina bada, urez eta xaboiz garbitu eta hotza jarri, handitua eta asnahia arintzeko.

Asnahia baretzeko ere, amoniakoa duen produkturen batekin igurtzi edo baratxuri batekin.

Erleen ziztada asko baldin baduzu, begietatik zein ahotik hurbil badaude edo oso gaizki bazaude, Osasun Etxera hurbildu.

Edozein pertsonengan: ziztatu ondotik, arnasa hartzeko zailtasuna, arnasa txistukaria eta aurpegia, betazalak, belarriak, ahoa, eskuak edo hankak handitzen baldin badira; goragalea, goitika egitea edo beheitikoak, zorabioak izan edo konortea galtzen bada, lehenbailehen 112ra deitu.

Prebentzio-neurriak: gorputza ongi estaltzen duen arropa, intsektuak uxatzeko tresnak erabili...

Edozein zalantza duzula ere, galdetu zure erizainari.

Irakurleak mintzo

Zigako gazteen eta herriaren eskertza

Zigako gazteak

Eguraldi lagun, ehunka pertsona elkartu ginen abuztuaren 7an Zigako Plazan Benito Lertxundiren kantaldiaz gozatzera, herriko ezkil-jotzaileek hasiera eman zioten bi ordu baino gehiago luzatu zen kontzertuari. Aurretik herritar kuadrilla bat trafikoa gidatzen, sarrerak kontrolatzen, taberna eta bokatak egiten ibili ziren. Herri txikiak lan handia egin du, bai aitzinetik bai egunean bertan, eta alde aurretik barkamenak eskatu norbaiti zerbitzuren bat ez bazitzaion egoki iduritu. Guk gure esku zen guztia egin genuen, ilusio eta auzolan ikaragarri!!

Eta hortaz, Zigako gazte eta herriaren partetik eskerrak eman nahi ditugu kantaldira-ko zuen laguntza eskaini diguzuen guztioi: Orona, Etxezuria Landaetxea, Baztandarren biltzarra, Ze-goxo fruta dendak, Aldekoa landetxea, Urballo eraikuntzak, Xanti ibarra elektrizitate, Zur-zar zurgindegia, Migelene eraikuntzak, Indauto, Elicetxe suministros, Fantxike arropa eta opari denda, Idoia Oteiza ileapaindegia, Sarobe eraikuntzak, Saioa ostata, Txokoa ileapaindegia, Panificadora Baztanesa, Apeztegia burdindegia, Bittor Elizagoien eraikuntzak, Arozberri, Jauregia, Iparla kirolak, Oskariz anaiak, Oskorri, Martintxo Arraztoa, Pierresenea, Kokekte, Arkupe gozotegia, Juan Pedro Agerrebere aroztegi metalikoa. Eta borondatea eman duten partikularrei.

Mezua zabaltzen lagundu diguzuenoi: Xorroxin irratia, Ttipi-ttapa, Xaloea, Karrape, Irati, Euskalerrria eta Esanerran irratia.

Eserlekuak utzi eta ekarri dizkigutenei: Baztandarren Bil-

tzarra, Baztango udala, Berroeta, Aniz eta Iruritako herria, Migelene eraikuntzak.

Txartelen salmenta egin duten komertzioei, argazkiak utzi dituzten Juanito Lameirinhas eta Eburne Biguriari, etxeetan tokia utzi duten Etxezuria, Aldekoa, Etxenikia eta Auzteia etxeei. Hilabete hauetan auzolanean, antolaketa lanean aritu diren eta garen guztioi eskerrak, bai gazte eta heldu, eta norbait atzendu badugu, hari ere eskermile!!!

Bertsolaritzaren transmisioa

Zigako gazteak

Bertsolaritzari buruzko erreportajea irakurri ondoren, nire familiari buruzko kontuak aipatu nahi nituzke:

Goizuetako Andres Mitxelena, nire aitona, eta Andres NARBARTO izan dira munduko bertsolari hoberenak nire ustez. Gogoan dut, ardiei lea mozteko eguna izaten zela egunik politena, bertsotan aritzen zirelako. Txapelketa batean, Xaltori Belgikako erreginari buruzkoa puntua jarri zioten eta berak Belgikako erreginarekin kontuak ez zekizkienez, bertsoa aldrebes bota zuelako txapelketa galdu zuen.

Nire aitona ez zen txapelketetan aritu, baina behar zen garaian bertso ederrak botatzen zituen. Andres Mitxelena Insauperekin ezkondu zen, Bordazpiko Erramona deitzen zioten. Bost seme alaba izan zituen. *Kankarro* deitzen zioten Andreasi, Frantzian hil zuten. Amona Olaberri etxean, Goizuetan gelditu zen 5 seme-alaben ardurapean.



Bota bertsoa

Olaia INZIARTE (Oronoz-Mugairi) • Doinua: Habanera
Baztan-Bidasoko Bertsopaper lehiaketan 1. saria (15-18 urte)

Herria eta hizkuntza

- Gogoan dut nola oraindik aitaxi eri zagonean bere maindire artean zebilen gogoz bizirik hankak ezin mugiturik ama hizkuntza ahoan ta ni ninduela alboan kontakizun bat hasirik "Ai nire gazte denbora gerra, hotza ta gosea, garai hartan ixiltzea ez zen hautagai, ez moda etorri nire ondora eta laburtuz, eta motz ahaztu dena, dena arrotz ekarriko dut gogora".
- Aitaxin hitz jariora aditu nuen ixilik bihurtu zuen gogotik historia-istorioa hasiera, konklusioa den-denak gogoz kontatuz bere solasa maitatuz bituz ilusioa ahazturaren barrenean zuen ahanzte ahantzi ta nik behar dut idatzi zerbait horren ohorean Alzheimerra barrenean baitzun memoria janez horren fruitua indarrez hementxe bertso batean:
- Hizkuntza eta herria herria eta hizkuntza eguneroko behar du bultzatza zaharra eta berria zein da oraingo iturria? Zein oraingo helburua? Muga legalen murua ez da gure armarrria bitan zatitu gintuzten ta zati oso bat gara memoriaren ganbara segiko dugu mantentzen ta beti eskamak kentzen larrutu zaigu azala halere nola-edo hala gabiltz kateak astintzen.
- Zurea nire modura hortxe duzu laburtua gure herri urratua jostea dugu helmuga aisialdiko ohitura etorkizuneko-ardatza izan bedi esperantza konpromisoa ardura «Nekez uzten du herria sustraiak han dituenak» zion poetaren lemak pena bere oinarria ta gogoan aberria Euskal Herria gurea egin dezagun bidea zuri berde ta gorria.



HARPIDETU!
eta hamabostero aldizkaria zure etxean hartuko duzu

TARIFAK

- Hego Euskal Herria 40 €
- Europa 74 €
- Baztan, Urzazubi eta Maierreka 34 €
- Leitza 20 €
- Amerika eta Australia 124 €
- Ipar Euskal Herria 74 €

Koskontako bidea, 7 - 1 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635 458
erran.us | info@ttipi.eus

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Pinturak berak esaten dizkizu gauzak... Askotan, zuk ideia bat duzu buruan, eta gero bestelakoa margotzen duzu. Aldatzen da, eta harritzen zara egiten duzunaz. Margotzea koadroarekin elkarrizketa bat izatea da. Entzun behar diozu».

Tomas SOBRINO
Elizondoko margolaria
Naf.HITZA 2016.07.29



«[Murala margotzeko] Udaletxetik berdintasunaren mezua isladatzeko eskatu zidaten eta Ezpatadantza horren adibide ona da. ALKE taldearekin kontsultatu eta gero, nere esku utzi zuten zer pintatu pareta bakoitzean».

Mikel ALKOZ
Leitzako margolaria
D.NOTICIAS 2016.08.10

«Paisaiak bidea ematen du. Ez dakit, nik uste dut Baztanen badugula sentsibilitate artistikoa».

«Esperientzia polita eta aberasgarria izan da ni margotzen ari-tzea eta jendeak prozesu osoa ikustea».

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

22 urte dituen eratsundar gaztea naiz.

Zein afizio dituzu?

Mendira joan, arratsalde lasai bat lagun artean pasa...eta asteburuan kotxea hartu eta kosta alde-ra joatea.

Ile-apaintzailea izanda. Aixturak zorrotz eta...

Momentuz belarrik ez dut tartean harrapatu! Eta espero dut inoiz horrelako anekdotarik kontatu behar ez izatea.

Ile-apaintzaileak maiz aldatu behar izaten du orrazkeraz?

Beharrezkoa ez da baina, egia da bezeroak horrela animatzen ditugu aldaketak egitera.

Festazalea zara?

Bai baina neurrian, dena bezala.

Zein da Erantsugo festetako berezitsuna?

Herrian egoten den giroa. Egun eta ekitaldi guztiek badute bere xarma.

Zer dute festek soberan eta zer faltan?

Herri ttiki bat izateko nik uste festa konpletoak direla, adin guztietako jendearentzat daude ekitaldiak.

Eguna edo gaua nahiago?

Biak gustatzen zaizkit, momentua

eta lekuaren arabera bata edo bestea.

Eratsunen egon ez denak, zer galtzen du?

Herri eta inguruko paraje dotoreak.

Bidaiatzea gustuko duzu?

Bai, nahiz eta orain arte ez dudan aukera gehiagirik izan. Egunen batean New York bisitatzea gustatuko litzaidake.

Zer behar duzu zoriontsu izateko?

Nere inguruko jendearekin egon eta orain arte bezala ile-apaintzaile moduan lanean segitzea.



Alazne JAURENA → Erantsungo gaztea

sarnoha
gozotegia okindegia

p^o de eztegara 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiaik
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

Goieko INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESINFEKZIOAK • DESINSEKTAZIOAK • DESARRATOITZEAK
Zure inguruu klase guztietako insetuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kuku...)
eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu daitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



LESAKA^{KO}
UDAL KIROLDEGIA
www.lesakakoudalkiroldegia.com



Irailak 3, 4, 10 eta 11 ESKAINTZA BEREZIA
%50eko deskontua matrikulan
112,26€ ordaindu beharrean 56,13€ ordainduko da

Komentu kalea, 2 · 31770 LESAKA · T. 948 637 400
kiroldegia@lesaka.eus

ANA TOVAR
YOGA IRAKASLEA

DONEZTEBE · ELIZONDO · BERA
SAIO IREKIAK PROBATZEKO

679 210 910



Matrikulazioa irailaren 7tik aurrera
Ikasturte hasiera irailak 12



• NURSTUDIOPILATES •



• PILATES METODOA • K-STRETCH METODOA •
• METODO HIPOPRESIBOA •
• REBALANCING BODY WORK •

NURIA FUEJO RIFÉ

T. 627 039 233 • nurfuejo@gmail.com
Rosa Seminario 7-behea • DONEZTEBE
www.nurstudiopilates.com

IKASTURTE HASIERA

Gorputza astintzeko garaia...

Iraila hasieraren sinonimo izanen da aunitzentzat. Uda luzearen ondotik liburu artera itzultzeko garaia, gorputza berriz ere lanean jarri edota erronka berriei heltzeko unea.

Kirola egiteko probestuko zituzten batzuek udako hilabeteak, baina egiari zor, gehienentzat atsedean hartzeko garaia izaten da. Irailetik aurrera ordea, kirolerako arropa eta zapatilak soinean jarri eta gorputza zaintzen hasteko unea iristen da.


PILATES, ZUMBA, YOGA...

Ikastaro berri batean izena-eman, pasa den urteko taldean segi... askoren zalantza izaten da ikasturte hasiera honetan. Horregatik, eskualdeko kiroldegi eta kirol zentroetan saio irekiak antolatzen dituzte batean eta bertzean probatu ondotik norberaren gustukoa aukeratzeko. Irailan izan ohi dira saio hauek eta baita matrikulazio epeak, beraz adi ibili!

ADITUEN GIDARITZAPEAN

Kirolean gozatu eta ariketak behar den bezala egiteko, garrantzitsua izaten da kirol irakasleek betetzen duten papera. Gure eskualdean, urtetako esperientzia duten adituak ari dira lanean, metodo, kirol aparatu eta teknika berritzailenak klaseetako ariketa desberdinetan txertatuaz. Kirola egitea bezain garrantzitsua izaten da egiten diren ariketak ongi egitea, jarrera egokiak hartuz... irakasle hauek arreta pertsonalizatua eskaintzen dutenez, lesioak ekiditea errazagoa da.

(Hainbat ikerketek frogatu dute taldean egiten diren jardueretan errendimendua altuagoa izaten dela.)




TOKI ONA
Berako
Udal Kiroldegia

2016-2017
Kirol Jardueren programa
Apunta zaitetz!

Laster eskuorria zuen etxean!



Urdis Berak
SERVICIOS DEPORTIVOS / GIMNASIAZ

f Berako Toki-Ona kiroldegia @berakiroldegia
INFORMAZIOA: 948 630 215 • bera@urdisl.com

IKASTURTE HASIERA

... eta burua lanean jartzekoa

Iraileko lehenbiziko astean hasiko dute ikasturtea eskualdeko ikastetxe gehienek eta gazte eta helduek ere lanari ekin beharko diote. Kosta egiten da batzuetan errutinara bueltatzea baina dena ez da makurra izaten, ikasturte hasierak izaten duelako berri usaina ere. Liburu berrien usaina eta norbere buruari jartzen zaizkion helburu berriena.

MOTXILAK BETETZEKO GARAIA

Ikasgeletara joan aurretik beharrezko ikas-materiala erosten hastea komeni da. Koloretako margoak, kuadernoak, boligrafoak... urtero bezalaxe produktu aukera zabala prest dute eskualdeko komertzio tikietan, azken berrikuntzak eta urtetako esperientzia lotzen dituen hurbileko zerbitzua eskainiz.

HIZKUNTZEKIN LANEAN...

Ikastetxeekin batera hizkuntza akademiak eta euskaltegiak ere lanean hasiko dira. Ikasleen ezagutza mailari egokitutako klaseak eskaintzen dituztenez ezagutzak zabaldu edota hutsetik hizkuntza bat ikasten hasi nahi dutenentzat, denentzat dituzte aukerak. Gainera, atzerriko hizkuntzen artean ingelesak nagusi izaten segitzen duen arren, bertzeko hizkuntzak ere ari dira pixkanaka tokia hartzen: alemaniera, frantsesa...

Animo eta ekin gogor lanari!





KAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBUK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



ENGLISH ACADEMY

2016/2017 kurtsorako
matrikulazio epea zabalik, plaza mugatuak

IKASTURTE HASIERA: Irailak 19

University of Cambridge azterketara
aurkezteko prestakuntza

Itzulpen lanak egiten dira • Eskola laguntza

25 URTE MALERREKAN

Elizagibela, 7 behea · 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 · angieacademy@gmail.com



artesiaga

PAPERTEGIA ESKOLAK INFORMATIKA KOPISTEGIA BULEGOAK
elizondo tel. 948 580 639 www.artesiaga.com

HIPERSIMPLY

BAZTAN - BIDASOA MERKATALGUNA - 948.452.656 - 9H00-21H00

ESKOLARAKO ITZULERA



GIZARTEA

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 3AN EGINEN DUTE

Artzain amerikanoen Egunak hamargarren urteurrena du Izaban

Hamargarren urteurrena ospatuko dute, 'Urrinean Biltruk' goiburupean



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Beran bildu ziren Ameriketako artzainak.

TTIPI-TTAPA

Euskal Artzainak Ameriketako artzain "amerikanoen" festarako egitarau zabalak prestatu dituzte aurten ere. Irailaren 3an ospatuko da, Izaban (Erronkari), Urrinean Biltruk goiburupean. 2006an Lesakan lehen aldiz egin zenetik hamar urte bete dira. Joan den urtean Beran egin zen.

IRAILAREN 3KO EGITARAUA

• 10:00etan Harrera eta "migas con pan"ekin

egindako hamaiketakoa, fanfarrak eta dantzariekin.

- 12:00etan bi aukera izanen dute artzainek. Alde batetik, zendutako artzainen omenez egindako mezara joa-

tea, Julian Gayarre abesbatzak lagunduta. Bertze aldetik, Museo etnografikora bisita egin dezakete.

- 13:30ean Bazkaria: higball, musika eta zozketak.

• 19:30ean Itzulera.

Aurtengo leloa *Urrinean biltruk* da (Erronkarietaz, *Urrinean bilduak* erran nahi du), hain ezberdinak diren bi lurraldetan, bizitza eta lana egiteko modu ber-

dina egin ahal izana go-raipatu nahi du.

Tiketak ohiko tokietan salgai egonen dira.

Aurten gainera, Euskal Artzainak Ameriketako elkarteak bere ibilaldi honetan ondoan eduki dituen bazkide nahiz erakunde ezberdinei bere esker ona adierazi nahi die.

Ibilbidea 2005 hasi zen, Lesakan, bertako artzain talde txiki bat bildu zenean. Hori izan zen hurrengo urtean, 2006an, berriro Lesakan, ospatu zen bestaren lehen edizioa. Horregatik, 10 urte hauetan egin diren festa eta ekimen ezberdinetako argazkiak biltzen dituen egutegi bat egin dute, eta «bazkide eta erakunde desberdinei barnatuko diegu, gure esker ona adieraziz».

ONDAREA → IRAILAREN 14 ETA 15EAN, BURGOS ETA PASAIA LOTZEN DITUEN BIDEA

Gurdi Bidea Leitzatik ere pasatuko da

Idiek tiratuta Albaolara bikea eta alkitrana garraiatuko dute

TTIPI-TTAPA

Olazti eta Leitza arteko Nafarroako hogleiren bat herri egingo diete harrera irailaren 10etik 15era idiek eta

mendi-behiek tiratuta hiru gurdik osaturiko ilarari. Bikea eta alkitrana garraiatuko dituzte Burgosetik hasi eta Pasaiaraino, San Juan itsasontzia istinkatuko. Albalan ari dira eraikitzen, eta XVI. mendeko baleontziaren errepika zehatza da.

18 etapatan dago banatuta 200 kilometro inguruko ibilbidea eta

Burgoseko, Errioxako (Foncea), Arabako, Nafarroako eta Gipuzkoako lurralde zeharkatuko ditu Gurdi Bidea ekimeneko segizioak. Abuztuaren 31n hasi da Burgosen eta Donostia eta Pasaiara iritsiko da irailaren 17an. Nahi duenak har dezake parte ibilbidean.

Goizeko 8ak aldera hasiko dira etapak, eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gurdi Bidearen aurkezpena, Pasaiako Albaolan.

ibilbidearen edo antolatutako jolas- eta kultura-jardueren arabera izango da etapen amaiera.

Nafarroan, irailaren 10ean sartuko da segizioa Olaztin eta Altsasun. Hauek izango dira etapen ondorengo egu-

netan: irailak 11, Altsasu-Uharte Arakil; irailak 12, Uharte Arakil-Irurtzun; irailak 13, Irurtzun-Lekunberri; irailak 14, Lekunberri-Erasote-Leitza. Irailaren 15ean, Leitza aterako da segizioa, Andoainera bidetan.

HITZARMENA → CEDERNA GARALURREK ETA NAFARROAKO GOBERNUAK

2014-2016 Mendialdeko Landa Garapenerako Programa hitzartu dute

6 milio euroko inbertsioa egitea adostu dute Nafarroako Mendialdean

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 23an, asteartea, Cederna Garalurrek eta Nafarroako Gobernuak 2014-2020 Mendialdeko Landa Garapenerako Programa (LGP) berriaren hitzarmena sinatu dute. Hori esker datozen urteotan 6 milioi euro inbertituko dira Nafarroako Mendialdeko ehun ekonomikoa eta zerbitzu publikoak hobetze aldera, erakunde publikoek eta ekimen pribatuak sustaturiko proiektuak laguntzen.

Zentzu honetan, Mendialdeko 2014-



ARGAZKIA: CEDERNA GARALUR

Argazkian, Ignacio Gil Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendari Orokorra eta Maite Iturre, Cederna-Garalurreko lehendakaria.

2020 PDR berriak jarduera ekonomiko eta enplegua sortuko duten ekimen produktiboen alde egingo duen apustua azpimarratu behar da. Honekin batera, proiektu ez produktibok lagunduko dira, ha-

la nola zerbitzu edo ekimendu publikoak. Proiektu hauek Cederna Garalurren Lurralde Estrategian definitutako 5 ardatzen baitakoa izan beharko dute: Populazioaren mantentzea eta kontsolida-

dazioa; Lehen sektorea eta basogintza; baliabide naturalak; zerbitzuen garapena eta ondarearen balioa sustatzea; enpresen kontsolidazioari laguntza eta enplegua sortzea.

2014-2020 Nafarroa-

ko Mendialdeko LGP-a 2014-2020 Nafarroako Landa Garapenerako Programaren 19.2 neurriaren baitan sartzen da ("LEADER"), eta Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako Departamentuak ematen dio aurrekontuaren %35-a, eta beste %65-a, Europar Batasunak FEADER fondoen bitartez.

Mendialdeko Landa Garapenerako Planak jarraipena emango die Nafarroan Europako Batasunak landa eremua sustatzeko egiten dituen politikei. Duela 25 urte jarri zen martxan Cederna Garalurrek kudeaturiko lehenengo LEADER programa. Diru laguntzen lehenengo deialdia 2016ko azkeneko hiruhilabetean argitaratuko da.

HONDAKINAK → AITZINDARIAK NAFARROAN

Errefusa zaborrontziaren tapa estreinatu dute Etxalarren

Hondakin guztiak nahasita botatzea sahiestu nahi dute

TTIPI-TTAPA

Hondakinen bereizketa eta birziklapenean Etxalar eredugarria izateko kanpainan bertze urrats bat eman du Bortzietako Hondakinen

Mankomunitateak. Errefusa zaborrontziaren tapa berria paratu diete herriko zaborrontzi guztiei. Proba pilotu bat da, aitzindaria Nafarroan, eta honela, bertara hondakin guztiak nahasita bota daitezkeen sahiestu nahi dute.

Bide batez, Bortzietako Hondakinen Mankomunitatek orotarazi nahi izan dute «birziklatzea derrigorrezkoa

dela denentzat, eta denen erantzukizuna dela». Izan ere, edukiontzi berdera botatzen diren hondakinak ez dira bereizten eta ezta birziklatzen ere. «Mankomunitateak zerbitzu aunitz ditu etxeetan eta saltokietan sortzen diren hondakin gehienak bereizita bildu ahal izateko».

Errefusa edukiontzietara zenbait hondakin



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxalarko zaborrontzi guztiei jarri diete tapa berria.

mota bota behar direla ere gogoratu dute: paradelak eta konpresak, hortz eskuilak, bizarra mozteko bizar-xafiak, zeramika eta portzelanazko objektuak, ispiluko eta leihoetako kristalak, kristalezko edatariak, paper plastifi-

katua edo materia organikoaren edo oilo industrialekin zikindutakoa... «Artikulu hauek erraz sartzen dira edukiontziak duen aho berritik. Beraz, Mankomunitateak ez du onartuko poltsak lurrean uztea», gaineratu du.

BERA

HITZARMENA → ABUZTUAREN 23AN

Gure txokoak Matzada futbol zelaia erabiltzeko hitzarmena sinatu du Udalarekin

Hamabi urtetarako balioa izanen du hitzarmenak

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 23an, sinatu zuten Josu Irtzoki, Berako alkateak, eta Jaione Dozagareteak, Gure Txokoako lehendakariak, Matzada futbol zelaia erabileraren gaineko hitzarmena. Hala, aurrerantzean ere, Gure Txokoa elkarte arduratuko da Matzada zelaia erabiltzeko baimena izanen du. 12 urtetarako balioa izanen du hitzarmenak eta bi aldeek hala erabakiz gero luzatzeko aukera izanen dute. Dena den, beharrezkoa denean, Udalari, ikastetxei eta herriko el-

DATUA

20

ENPRESEK
elkarteari emandako babesa funtsezkoa izan da futbol zelaian belar artifiziala jarri ahal izateko.

karteei zelaia utziko die Gure Txokoak. Egin beharreko hobekuntza lanen ardura ere elkartearen esku egonen da, Udalaren laguntzarekin. Hitzarmen honen baitan, zelai naturala belar artifizialagatik aldatzeko lanen inguruko xehetasunak zehaztu dituzte.

**BELAR ARTIFIZIALA
JARTZEKO PAUSOA**

Belar artifiziala jarrita futbol zelaia egune-



ARGAZKIA: GURE TXOKOA ELKARTEAK

Josu Irtzoki, Berako alkatea eta Jaione Dozagarat, Gure Txokoako lehendakaria.

ro erabili ahal izatea lortu nahi dute «orain artean, belar naturalarekin ez zen posible hondatu egiten zelako». Lanak dagoeneko hasiak dituzte eta lehenbiziko fasean futbol zelaia inguruko perimetro batetako eta itxierako belarra aldatuko dituzte. Hobekuntza lan hauen kostua 500.000 eurokoa izanen da eta horietatik zatirik handiena, 380.000 euro zelai artifiziala jartzera bideratuko dira. Udalak mantentzen diren gastuak ordaintzeko 20.000 euroko laguntza emanen dio aurrean ere Gure Txokoari.

Duela urte asko hasi zen Gure Txokoa elkarteak, inguruko Udalen laguntzarekin, Matzadan egiten hasi di-

ren obra hauek egiteko finantziario bila eta urte urte, Nafarroako Gobernuaren eta Futbol Federazioen ezezkotasuna izan dute. Aurrean ordea, Futbol Federazioak baiezkotasuna eman die eta Gure Txokoak proiektuari heldu dio.

Berez, hiru zatitan ordaindu ohi direlako gisa honetako proiektuak: Gobernuaren, Futbol Federazioaren eta Udalaren artean. Udalaren babesa hasieratik izan du Gure Txokoak eta Futbol Federazioaren baiezkotasuna lortuta, Nafarroako Gobernuak Kiroleta eta Gizarte gaitetako arduradunekin elkartu ziren obrak finantzatzeko laguntza eske. Egoera ekonomiko artetako laguntza hori ematez dela posible eran-

tzun zien Gobernuko ordezkariak eta azkenean Gure Txokoak bere gain hartu du zati hori ordaintzeko finantziarioa lortzea.

Horretarako, babesle bilatu dute eta Gobernuak, elkarteari egindako aportazio horiek desgrabatzeko konpromisoa hartu du. Azkenean, hogeita hamar enpresa bihurtu dira Gure Txokoaren babesle eta hala lortu da obrak ordaindu ahal izateko falta zen hirugarren zatia. Nafarroan halakorik gertatzen den lehenbiziko aldia da eta horri esker, Gure Txokoako 160 jokalari eta azken finean, Berako herritar guztiek Matzada futbol zelaia dagoen erabilerara emateko aukera izanen dute etorkizunean.

erran

Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

Urtetako lehenengo elurtea

Erakusketa Bereau Etxea

Google play

Download on the App Store

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANIAK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

INGURUMENA → ESPEZIEEN JOAN-ETORRIA ERRAZTUZ

Endarlatsa eta San Martingo presak botako dituzte abudo

Excavaciones Corella enpresak eginen ditu 166.771,65 euroren truke

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Ingurumen Kudeaketarako elkarteak (GAN) Excavaciones Corella SL enpresari eman dio Endarlatsa eta San Martingo presak botatzeko lanak. Lehenbizikoa 71.995,87 euroren truke eginen du eta bigarrena 94.775,78 euroren truke, denera, 166.771,65 euro. Horretaz gain, aipatutako presen eraistearen jarraipen geomorfologikoa egiteko asistentzia teknikoa Euskal Herriko Unibertsitateari eman dio GANek, 54.500 euroren truke.

Endarlatsako presa botatzeko lanetarako zazpi enpresa aurkeztu ziren eta San Martingo orako zortzi eta guztien artean Excavaciones Corellaren eskaintza izan zen onena.

Europako Batzordeak diruz laguntzen duen Life 2014-2020 Planaren baitan, Life Irekibai programaren barnean dago presa hauek botatzea, oztopoak kentzerakoan erreketa bizi diren espezieen harat-honata errazteko helburuarekin. Orain, ltu-rengo piszifaktoriko presa botatzea geldituko litzateke.

Udalak gai hau lantzen zuen uztailako batzarraren. Bera eta Baztango Ehiza eta Arrantza elkarteek eta Bidasoko Nazak Arrantzale Elkarrekin Endarlatsako presa bota ordez, San Martingoa bota ondotik Endarlatsakoaren atea zabaltzea proposatu zuten, bi urtez zer eragina duen ikusteko. Nahiz eta Herriako taldeko bi zinegotzik eta UPNkoak alde bozkatu, puntu hori ez zuen onartu Udalak (gainerakoak bai) eta Endarlatsakoa ere botatzearen alde agertu zen, «ibaiari onura ekartzen diolako eta Europako araudiak hala eskatzen duelako», alkaterearen erranetan



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Danborradak Herriko Etxeko eta Altzateko plazak lotu ditu

Besten aitzinetik egin zen Erraldoien Topaketaz edo Beragazte elkartekoek botatako txupinazoaz gain, hainbat hamarkadaren ondotik berreskuratutako danborrada izan da aurtengo bestetako berrikuntza nagusia. Hasieran, Totonon Er-randoneak aginte-makila eman zion Joseba Lasarteri eta honen gidaritzapean aritu ziren 48 danborjole Herriko Etxeko eta Altzateko plazan arteko bidean.

JON ABRILEK ZUZENDUA

'Neskatoak' dokumentala DVDan salgai paratu dute

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 6an estreinatu zenetik 30 emanaldi baino gehiago eman ondotik, DVD formatuan argitaratu da *Neskatoak* dokumentala.

Udazkenean Euskal Herriko hainbat tokitan pantaila handian ikusteko aukera egonen da oraindik, bertzeren artean, irailaren 8an Iruñean (Nafarroako Filmotekan); urriaren 13an Portugaleteko Ballonti zinemaren; eta urriaren 26an Getxoko Villamonteko kultur etxean. Datak zehaztu gabe badaude ere, Lapurdin, Araban eta Gipuzkoan ere ikusi ahal izanen da.

Nolanahi ere, etxean ere ikusi ahal izanen du nahi duen orok, DVD formatuan salgai paratu baita dokumentala, 10 euroren truke.

Dokumentala toki hauetan dago salgai: **Beran:** Agara prentsa, Artieda estankoa, Elkar paper-denda, Igone paper-denda, Irene prentsa eta Zelaieta estankoa. **Lesakan:** Legarra estankoa, Telletxea estankoa eta Xagu paper-denda. **Iruñean:** Karrikiri-dendan eta Katakrazen. Laster Euskal Herriko bertze toki batzuetan ere erosi ahal izanen da.

FLASH

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en 'Amalur'

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren Amalur ikuskizuna ikusgai izanen da irailaren 24an Eztegarra pilotalekuan. Sarrerak irailaren 1etik aitzine- ra salgai izanen dira Doneztebeko Kimetz, Etxalarko Herriko Ostatuan, Lesakako Atxaspin eta Berako Purienean.

3.845 liztor beltz udaberrian

15 erlezainen artean tranpak eta liztorrak erakartzeko likidua banatu zuen Udalak. Emaizta aski onak lortu dira, apiriletik ekain arte 3.845 liztor har- rrapatu baitira Bera inguruan, hauetako gehienak edo ia denak erreginak. Orain ikusi behar udazkenean nabari den lan hau. Udazkenean bertze bilera bat eginen da sa- soi horretan zein neurri hartu erabakitzeko.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

xirgil
jalone goya
ileopaindegi mistoa
Alzate 1, 31780 BERA
948 631 462

ERREKALDE
PLATER KOMBINATUAK OSTATUA
PINTXOAK
BOCHAK
TFNoA: 948 630 259 BERA

LESAKA

GIZARTEA → ABENDUAREN 19KO SUTEARENGATIK

130.000 euroko kalteordaina eskatu dio Udalak Iberdrolari

Dokumentazio ofizialarekin ziurtatu daitezkeen galerak dira

Aitor AROTZENA

Joan den urteko abenduaren 19an Frainen izandako suteak sortutako kalteak estaltzeko 130.000 euroko kalteordaina eskatu dio Udalak Iberdrola argindar enpresari.

Jose Luis Etxegarai alkateak aipatu duenez, «hori, dokumentazio ofizialarekin ziurtatzen ahal diren kalteak dira, Udalak egindako plantazioei dagozkionak, baina seguru galerak handiagoak direla. Guk egindako kalkuluaren eta Foruzaingoak egindako atestatuan Hektareako balio bat jari dugu eta itzaltze gastuak gehituta, 944.106,90 euroko gastua da. Epai-ketan jakinen da egia».

Lesakan 147,90 Hektarea erre zituen abenduko suteak, horietatik 143,60 Hektarea herri-lurrak. Lekuko enabera, zuhaitz bat argindar

sarearen gainean eroritakoan hasi zen sua eta Iberdrolak eremu horiek garbitzeko baimena dauka.

Udalak ahobatez hartutako akordioaren arabera, abokatu batek bilduko du behar den informazioa. Iberdrolarekin eskutitzez egindako lehen harremanean enpresak eskuak garbitu zituen eta izatekotan, sutearen ardura zuhaitzaren jabearena zela erantzun zuen eta hortaz auzibidea hartu du Udalak. Alkateak dio salaketa honenkin bi helburu dituztela: «alde batetik sutean galdutako guztia edo gehiena errekuuperatzea eta bertetik, gertatzen diren sute guztiak ikertuko dituztela jakinaraztea, arduradunek ordain dezaten eta kontu gehuagorekin ibil daitezten».

Bittiriko bestarik ez

Aurten ez da Bittiriko bestarik izanen. Antolakuntza ibiltzen den jendea «nekatua» dagoela adierazi dute, eta «indar berririk ez dagoenez», bertan behera uztea erabaki dute.



ARGAZKIA. A. AROTZENA

Liburutegia Herriko Etxetik Harriondora eramaten ari dira

Liburutegiak egoitza berria izanen du urritik aitzinera. Abuztuaren 8an, Herriko Etxeko hirugarren solairuko itxi eta Harriondora izanen duen leku berrira aldatzen hasi ziren. Abuztu eta irail osoa beharko dute 18.000 bolumenak eramateko. Liburutegi berriak 380 metro koadro izanen ditu (gaur egungoak 240) eta irakurketarako 82 toki, baita Interneten kontsultak egiteko sei ordenagailu ere.

ABUZTUAREN 15EAN FRANTZIAKO ALPEETAN

Bixente Igartzabal Embrunman proba gogorrean



Munduko probarik gogorrenetakotzat jotzen dute Embrunman proba, baina Bixente Igartzabalek ez du hutsik egin aurten ere. Abuztuaren 15ean egin zen Embrun hirian, Frantziako Alpeetan, bero eta haize haundiari aurre eginez. 1.048 kirolari atera ziren irteeran, baina horietatik 240k utzi zuten, normalean baino gehiagok. Hala ere, Beti Gazteko kirolariak lasterketa ona egin zuen eta 11 ordu, 32 minutu eta 9 segundotan helmugaratu zen. Saillapen orokorrean, 41. gelditu zen, beteranoetan 5. eta V2M kategorian lehenbiziko. Igeriketako probatik 747. atera zen (01:17:33), bizikletako probatik 27. (06:30:28) eta oinezko lasterketan, maratoian, 51. (03:34:47).

IRAILAREN 23-24AN

Garapen atipikoaz ikastaroa

A. AROTZENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak Garapen atipikoa duten haurren prozesu inklusiboa hezkuntza eta gizarte sistema eleaniztun baten ikastaroa eskainiko du irailaren 23 eta 24an Harriondora.

12 orduko ikastaroa izanen da, ortziral arratsaldean eta larunbatean. Osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen arloetako profesionalentzat, garapen atipikoa duten haurren familiakoentzat eta ikasleentzat zuzendua da eta matrikulazioa 50 euro gostako da.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Bitorrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

Lentzeria
Bainujantziak
Mertzeria
Jantzi tipikoak
Peñen bluskak
kattagorria
lentzeria mertzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 474

KIROLA → ARTE MARTZIALAK

Munduko Kenpo kai txapelketan izan dira Unai Arburua eta Edorta Iturria

Abuztuaren 2tik 15era Japonian egon dira

Iruñe ELIZAGOIEN

Apirilean Europako kopa jokatu zen Angelun eta bertan irabazita joan dira Edorta eta Unai Japoniako Munduko Kenpo kai txapelketara. Abuztuaren 7an Hamamatsun jokatu zen txapelketa handia eta emaitza onak lortuta itzuli dira etxera. Edorta semikon-takto modalitatean talde-ka (Oretetako neska eta Madrileko mutil batekin) munduko txapeldun izan da. Lehenengo Frantziaren kontra irabazita, azkenik finala japoniarren aurka egin eta hau ere irabazita munduko txapeldun gelditu ziren. Unai ere lan bikaina egin zuen Japoniako haur gogorren aurka. Nabari da bertako gaztetxoak tikitatik hortara ohitzen direla eta hagitz fuerte pres-tatzen direla. Unai infantiletan lehiatu zen kontakto eta kata modalitatean eta bi konbate egin zituen japoniarren aurka.

Turismoa egiteko ere aprobe txatu dute bidaia eta positiboki baloratu dute Edorta eta Unai.

Santa Krutzak

Urrizokietan auzoan bestak izanen dituzte:

IRAILAK 14, ASTEAZKENA

- 11:00etan txupinazoa Sainduneko zubian.
- 12:00etan meza Santa Krutz ermitan. Ondotik auzotarrek eskainitako hamaiketakoa.
- 18:00etan txokolatada Sainduneko zubian hurbiltzen diren guztientzat.
- 21:00etan zingar jatea auzotarrentzat Sainduneko zubian.

IRAILAK 18, IGANDEA

- 12:00etan meza Santa Krutz ermitan.
- Ondotik trikitilarien kalejira auzoan barna.
- 14:00etan asua Sainduneko zubian. Ondotik mus eta partxisa.
- 17:30ean jokoak.
- 18:30ean erromeria Elizagoien Ahizpen eskutik.
- 21:00etan afaria. Afalondoa trikitilariak.

IRAILAK 21, ASTELEHENA

- 09:00etan gosaria antolatzaileek. Karpa desmontatu eta zubi ingurua txukuntzea.
- 14ko afarira edo 18ko bazkarira joateko 948 635134 edo 948 635110-era deitu behar du irailaren 10a baino lehen.



Edorta Iturria eta Unai Arburua Japonian.

ARGAZKIAK: IDOIA ITURRIA




ARGAZKIAK: AIMAR IPARRAGIRRE


Giro ederrean joan dira herriko bestak

Abuztuaren 14an hasi eta 18ra arte izan da zertaz gozatu Etxalarren. Ekitaldi gehienak jendetsuak eta arrakastatsuak izan dira eta jende aunitz ibili da herrian besta egunetan. Urtero bezala, bestetako pilota txapelketa jokatu da, aurtun 30. edizioa izan da. Abuztuaren 17an jokatu ziren finalak eta guztira haurren txapelketan 24 pilotarik hartu dute parte eta gazteen txapelketan 18k. Benjaminetan Arri Atondo eta Kepa Telletxeak 22-9 irabazi zieten Aitor Azkarraga eta Ekaitz Maizeri. Alebinetan Eneko Zubieta eta Joseba Telletxeak 22-14 irabazi zieten Enaut Iturbide eta Kemen Ansalasi partida gogorra jokatu. Infantiletan, Andoni Otxoteko eta Xabier Telletxeak 22-15 irabazi zieten Markel Etxarte eta Unai Arburuari. Azkenik, Aitor Danboriena memorialean Xabier Etxarte *Armitx* eta Olivier izan ziren txapeldunak Beñat Irazoki *Babole* eta Julen Telletxearen aurka, 22-11. Txapelketaren ondotik, sari banaketa egin zen eta Joxemari Maiari omenaldia eta txapela eskaini zizkioten, 17 urtez haurrak entrenatzen aritu delako eta oraindik ere lan horretan jarraitzen duelako.

Ba al zenekien

Uztailaren 31n Erraldoi topaketa egin zela Beran eta bertan parte hartu zutela Etxalarke bi erraldoiek ere?






USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak • Burdin tresnak
- Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA



NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
ENEK
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

ETXEZ ETXEKO BANAKETA Inskripzio Zenbakia 1435

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → AURTEN SEIGARREN ALDIZ

Eguzkialdea auzoko bestak larunbat honetan izanen dira

Felix Etxeberria
eta Donato
Larretxea
aizkoran ariko
dira

Nerea ALTZURI

Hondarreko urteetan bezala, irailaren lehenbiziko larunbaterako besta eguna antolatu dute Eguzkialdeko auzotarrek. Aurtun 6. aldiz Eguzkialdeko bestak izanen dira irailaren 3an, larunbat honetan.

12:00etan altxaferoa botako dute. Ondotik, herri kirol saio ederra izanen da, aizkoran, arpanean eta sokatiran ariko dira. Aizkolarien artean, Donato Larretxea eta Felix Etxeberria ariko dira. Sokatiran auzotarrak ariko dira: berez auzotarrak direnak eta kanpotik auzora bizitzera etorri direnen arteko tiraldiak izanen dira.

14:00etan bazkaria izanen da eta joan nahi dutenek herriko ostaluetan txartelak salgai dituzte.

Eguna borobiltzeko, bazkalondoan, Beñat Mitxelena herriko musikariarekin dantzaldia izanen da.

Abuztuko udal informazioa

Beri sorta irakurri ahal izan da etxeetara bidali -tako informazio orrietan. Herria txukun mantendu

eta herriaren alde lanean ari diren herritar guztiengatik esker oneko hitzak izan ditu Udalak.

Gainerakoan, lehenetik ere hemen aipatutakoekin gain, 2015eko diru kontuak xehe-xehe ageri dira. Horrekin batera, ohartarazi dute berriz ere marrak margotu dituztela herrigunean non apartatu daitekeen eta non ez zehaztuz. Errespeta-tzea eskatu dute, bertze-la, kamioiak pasatzeko arazoak izaten baitira.

TXOKORIK POLITENAK

Udalak antolatuta estreinako egin den Txoko polit eta hobeki zainduaren lehiaketara, guztira zazpi argazki aurkeztu dira eta 144 herritarrek botoa eman ondotik, ondokoak izan dira saridunak: herrigunean, lehenbiziko saria Harregi eta bigarrena Zelalderentzat izan da; baserrietan, berriz, lehenbiziko postuan Albiz Azpikoaldea eta bigarren Aranibar. Zorionak denei!

ZAKURRAK

Zakurrak herrigunean eta baserrietan beuren gisa ibili gabe, kontrolpean izan behar direla ere oroitarazi dute Udaletik. Eta herrian barna lotuta dabilzan zakurren kakak jabeak bildu behar harko dituela ere bai.

OBRAK

Udaletik oroitarazi dute etxe barrenean edo



ARGAZKIAK: IGOR UGALDE

Bestak eta Arantza Rock ezin hobeki

Bertze aldi batez, herritarren auzolanak fruituak eman ditu eta ezin aipatu gabe utzi. Lau egun bete-bete izan ziren bestetan. Haur, gazte eta helduek, denek izan dute jardueretan parte hartu eta gozatzeko aukerarik. Balkoitik altxaferoa botatzeko ohorea Zahar Txokok izan zuen, eta bazkideen artean, Kamino Errandoneak bota zuen lehen sutziria. Haur eta gaztetxoek dantza saioa izan zen ondotik eta gero, 140 bat bazkaltiar bildu ziren Goiko Karrikan egindako zikiro jate arrakastatsuan. Abuztuaren 14an, igande goizean, 59 haur eta gaztetxok parte hartu zuten lasterketan. Arratsaldean ere, giro ederra izan zen plazan. Bertso saio polita izan zen eta tartean, Juanita Larralde, aurtun erretiratu den andereño, hitz ederrak eta opariak jaso zituen. Txamukos mariatxiek ere harrera ona izan zuten bertze urte batez. Amabirjin egunean, 50 inguru dantzari bildu ziren herriko dantza dantzatzera. Gainerakoan, nesken eta mutilen pilota partidak, herri kiroletan Nafarroako txokor biltze txapelketa, elkartasun afaria, auzoetako afariak, herriko haur eta gaztetxoek pilota partidak, kantu poteoa... izan dira. Eta haur eta gaztetxoengatik, puzgarriak, entzierro ttikia, herri kirolak, ginkana, espartzin tiraketa, puxika lehertzeak, aurpegi margotzeak, eskulanak... Abuztuaren 20an, azkenik, Arantza Rock jaialdia izan zen, 21. aldiz. Gazte Asanbladatik balorazio ona egin dute, auzolanean arituriko eta bestara bertaraturiko guztiak eskertuz. Egun horretan egin zen boletoen zozketa ere. Lehenbiziko saritua 0378 zenbakia izan da (Euskal Herriko landa-etxe batean bi lagunentzako asteburua); bigarren saritua 0334 zenbakia izan da (Aterpen hiru lagunentzako afaria) eta hirugarrena 1.746 zenbakia (Bortzirietako liburu-denda batean gastatzeko 50 euro). Saridunek hilabeteko epea izanen dute agertzeko.

kanpoan obraren bat egin nahi bada, ttikiena izanda ere, baimena eskatu behar dela. Lan horren izaera eta neurriaren arabera, Udalak adieraziko du zein dokumentazio gehiago aurkeztu beharko den.



GIZARTEA → ABUZTUAN ETA IRAILEAN

Liburutegi zerbitzua eskaintzen ari dira igerilekuan

Eguraldi onarekin liburu eta aldizkariak eskura daitezke igerilekuan

TTIPI-TTAPA

Herritar talde baten ekimenez, irakurzaletasunaz gozatzeko aukera dute igerilekura joaten direnek.

Urteak badira eskolan liburutegia antolatzen hasi zirela, eta egindako lanari esker, gaur egun, ehunka eta ehunka liburu katalogatuak daude eskolako liburutegian. Baina uda honetan, haratago joan dira eta liburu horiek liburutegitik ateratzea pentsatu du herritar talde batek, liburutegiko eskaintzari probetxua ateratzeko, batez ere, helduen eta gazteen artean.

Ekimen honi esker, abuztuan eta irailean, eguraldi ona den egunetan, liburu eta aldizkari batzuk igerilekura eramaten dituzte. Igerileku sarrian paratzen duten mahaitik nahi duenak liburuak eta aldizkariak har ditzake, 17:00etatik 19:00etara. Aldizkariak

egunean bertan bultzatzen dituzte, eta liburuak maileguan har ditzakete.

Ekimenaren bultzatzaileek adierazi digutenez, haur eta gaztetxoak hurbiltzen dira, baina heldu eta gazteei ere animatzeko deia luzatu diete. Igerilekuko denboraldia bukatu arte eskainiko dute zerbitzua.

Aitzinera begira liburutegia jendearengana zabaltzen segitu nahi dute.

Bideak eta pistak moldatzen

Berriki bukatu dituzte Irisarri auzoan, Bekoetxea eta Argata base-rrien arteko bidea moldatzeko lanak. Udalak 20.381 eurotan esleitu zizkion obrak Mikel Ubiaria enpresari eta honek abuztuaren 31ra bitarteko epea zuen lanak egiteko. Nafarroako Gobernuak lan hauek egiteko %70eko diru-laguntza onartu du.

Bertzalde, Frain eta Abelu alderdiko pistak moldatzeko diru-laguntza ere emanen du Gobernuak. Lerro hauek idazterakoan lanak esleitu gabeak zituen Udalak.



ARGAZKIAK: MAITE ZELAIETA

Herritarrek aldizkari eta liburuak irakurritz gozatzeko aukera dute igerilekuan.

Guraso Elkartearen ostatua

Aurten ere ostatua pa-

ratzeko asmoa du Guraso Elkarteak herriko bestetan. Lagundu nahi

duena elkarteko kideekin harremanetan jartzen ahal da.

XXVI. EDIZIOA

Mendi bizikleta ibilaldia igande honetan



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA
Iñigo Tellexea herritarra,
Petrükoren bordan.

Hitzorduari hutsik egin gabe, aurten XXVI. aldiz Mendi Bizikleta Ibilaldia antolatu du Biltoki Elkarteak igandean honetarako, irailak 4.

Froga ez da lehiakorra izanen eta lasterkariak bi ibilbide izanen dituzte aukeran: luzea 33 kilometrokoa eta ertaina 23 kilometrokoa. Hauetan parte parte hartu nahi dutenak 09:00etan abiatuko dira. Horiez gain, haurrentzako eta koxkorrentzako ere ibilbidea izanen da eta hauek 10:00etan aterako dira. Probaren ondotik, dutxak, bizikleta garbitzeko aukera, lun-

txa eta zozketak izanen dira parte-hartzaileentzat.

Herritik abiatu eta Iñarburura joan beharko dute txirindulariek. Handik Frainerako bidea hartuko dute eta trenbidera jautsiko dira gero. Kaxoten harria dagoen tokira igo beharko dute gero eta Errotarako bidean beheiti egin beharko dute berriz txirindulariek. Ibilbide luzea aukeratzen dutenak Apittura igotzen ahal izanen dira eta ertaina nahiago dutenak Apittura igo gabe helmugarako bidea hartzeko aukera izanen dute.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

SUNBILLA

KULTURA → HERRIKO BESTEN ERREPASOA

Eguraldi ona eta partaidetza ezin hobeia bestetan

Euskaltzain izendatutako Patxi Petrirena omendu dute

Maider PETRIRENA

Abuztuaren 10ean botatako altxaferoaren hasi ziren bestak. Hala ere, lehenik Sunbite elkar-teak antolatutako bizikleta ginkana egin zen plazan eta haur andana elkartu ziren. 20:00etan altxaferoaren txanda ailegatu zen eta aurtengoan Herriko Dantzari Taldearen izenean Mikel Arrieta eta Zaira Gaztelumendik botazuten. Hori baino lehen, apirilaren 29an Euskaltzain urgazle izendatu zuten Patxi Petrirena Alzuguren sunbildarra omendu zuen Udalak, herriaren izenean.

Abuztuaren 11, Tiburtzio Deunaren eguna, egun handia izaten da.

Goizeko gaiteroen doinu- nuen ondotik, dantzari, erraldoi eta Udaleko ki-deak elizara joan ziren gaitero eta txistularien laguntzarekin. Meza Nagusiaren ondotik, dantzari- en emanaldia eta luntxa izan ziren. Arratsalde partean, berriz, toka, aitzur eta zartain tiraketa jokatu ziren. Tokan 29 parte-hartzailearen artean, Joxe Mari Urroz nagusitu zen. Aitzurrean, 16 parte-hartzailearen artean, Unai Bertiz izan zen abile- na. Zartain tiraketan hamarrek parte hartu zuten eta Mañoli Agirre izan zen onena. Ondotik, plazan Puro Relajo taldearen emanaldia izan zen eta gurez artifizialak.

Abuztuaren 12an, egun ederra izan zuten haurrek. Goizeko arratsal- dez plaza jokoz bete- a izan zuten eta disfrutatu zuten. Arratsaldean jo- katu zen plate-



ARGAZKIAK: GARI AYESA, INES ELIZONDO, UNAI BERTIZ ETA MAIDER PETRIRENA

Giro politoan joan dira aurtengo bestak.

ro tiroketa, bertzalde, Iñaki Mikelarenak irabazi zuen. Zunbarekin gorputza mugitzeko aukera ere izan zen eta nola gainera. Gauean kontzertuak izan ziren eta jende andana hurbildu zen.

Abuztuaren 13an, gazteen egunean, goizez, herri krosa egin zen eta 69 lagunek parte hartu zuten: 0-6 urtekoetan Xabi Armendariz nagusitu zen, 7-12 urtekoetan Xuban Zelaieta eta heldue-

tan Xanti Manterola. Egun osoan tren txu-txuaz gozatzeko aukera ere izan zen. Eguerdian kuadrillen bazkaria izan zen eta ondotik, herrian barna *ura ura* eskatuz ibili ziren. Ilunabarreko lehiaketetara sei patata tortilla (Juana Marizkurrena irabazle) eta 12 postre aurkeztu zituzten (1. Maite Berasategi).

Akitzeko, **abuztuaren 14an** ezkonduen eguna izan zen. Goizeko mus txapelketan, 18 bikotek

parte hartu zuten eta Jose Miguel Galain eta Jose Luis Agirrek irabazi zuten. Arratsaldean, haurrek herri kirolak izan zituzten eta gauean herri afaria egin zen. Goizaldera akitu ziren bestak.

Erraldoiak Beran

Uztailak 31n Beran eskualdeko erraldoien topaketa egin zen eta tartean herriko erraldoiek parte hartu zuten. Hagitz ongi ibili ziren.

Ba al zenekien

Uztailean herritar batek Iturriotz iturria gutziz hautsia aurkitu zuela?



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

21 lagun V. Arretxokobordako kronoigoeran

Abuztuaren 6an V. Arretxokobordako kronoigoeran 21 partaidek parte hartu zuten, bizikletan nola lasterka. Lasterka Antonio Casado izan zen bizkorrena eta bizikletaz, berriz, Xabier Irazoki. Aipatu behar da urtetik urtera gaztetxo gehiago animatzen direla eta nolako mailarekin gainera. Aurtengoan 10 eta 13 urte bitartekoak sei ziren. Aurtengoan emakume bat animatu zen eta ea hurrengoan gehiagok parte hartzen duten. Sariez gain, parte hartzaileen artean zozketak egin zituzten. Zorionak denei eta eskerrik asko igoera polit hau antolatzen duten gutziei.

 **trento**
clínica dental

Trento, 8 · DONOSTIA | T. 943 316 944
info@dentaltrento.es www.clinicatrento.com

HERRIKO OSTATUAN → IRAILAREN 5ERA ARTE

Tren Txikitoaren erakusketa irailaren 5a arte zabalik

Asteburuan goiz eta arratsaldez eta aste tartzat arratsaldez ikus daitezke

Marga ERDOZAIN

Tren Txikitoaren mendeurrenako erakusketa Doneztebera ailegatu zaigu eta irailaren 5era arte Herriko Ostatuan ikusgai izanen da, honako orduetara honetan: larunbatean eta igandetan 10:30-13:30 eta 18:00-19:30, eta gainerako egunetan arratsaldez bakarrik (18:00-19:30). Azaroaren 10etik 20ra berriro ikusgai izanen da publiko orokorrarentzat eta bertako ikastetxeetako ikasleek ikus dezaten.

21 INFORMAZIO PANEL ETA GEHIAGO

Erakusketa ibiltari honek ekainean hasitako bideari jarraituz gurean egun batzuk ikusgai izanen da, aurten sorreraren 100 urteak ez ezik, itxieraren 60 urteak betetzen direla gogorarazteko.

Erakusketa hau gure bailarara etorri baino lehen Azpeitiko Euskal Museoa jarri zen. Hogeita bat informazio-pa-



Besta tikiak eta Basurde peña motorzalearen urteurrena

Iaz bezala, aurtengo besta tikiak Basurde peña motorzalearen topaketarekin batera ospatuko dira. Besta tikiak irailaren 16 eta 17an ospatuko dira eta Basurde peña motorzalearen urteurrena irailaren 17 eta 18an. Burrumba gazte taldea eta Basurde peña buru-belarri ari da asteburu dotorea antolatzen. Abuztuaren 24an udaletxean burutu zen bileran, gazteek egindako ekarpenak eta proposamenak landu ziren. Besta hauen programazioa eta, batez ere, umetxoendako ekitaldiak antolatzen laguntza beharrezkoa da programa adin guztien jendearengana ailegatu ahal izateko. Beraz, animatu eta ekarpenak luzatu. Hurrengo alean programaren zehaztapenak idatziko ditugu.

nelek osatzen dute, baina horretaz gain, Manuel Cariñena irundarrak eta Juan Mari Tellecheak, Iturenen bizidun elizondarrak bildu eta doan utzitako materiala (maketak, argazkiak, bidaia-txartelak, prentsako berriak, telefonoak, aulkiak...). Aukera ona garai hartako bizipenak eta Tren Txikitoaren *ttur-ttur ttur-ttur* berriro entzuteko, anitzen oroimenean baitago.

Agorreta Musika eskolak matrikula epea zabaldu du

Irailaren 5etik 9ra 2016-17 ikasturterako Agorreta Musika Eskolan izena emateko bigarren epea zabaldu du Udalak. Interesatuak 11:00etatik 13:00etara eskolatik pasatzen ahal dira argibideak eta dokumentazioa eskuratzera. Zalantzak 636 669750 telefonoan edo esmusidoneztebe@gmail.com

helbidera idatziz argituko dira.

Aurtengo ikasturteko eskaintzari dagokionez, aipatzen ahal da honako instrumentu hauek ikasteko aukera badela: akordeoia, gitara, perkusioa, pianoa, trikitixa eta txistua. 12 urte edo gehiago dutenentzat solfeorik gabe musika jotzen ikasteko aukera izanen da, eta instrumentu bat jo edo berreskuratzeko asmoa dutenentzat ere aukera zabaldu da. Eskaintza osatzeko haur abesbatza ere aukeratzen ahal da: musika ikasten ari ez, baina kantatzea gustuko dutenentzat. Aurtengo ikasturte, urtero bezala, urrian abiatuko da.

FLASH

Ikasturte berria martxan

Irailarekin batera ikasgeletara itzultzeko ordua ailegatu da gure ikastetxeetan ariko diren 500 ikasle baino gehiagorentzat. Goiztiarrenak Askin Haur Eskolakoak izanen dira, irailaren 5ean mantalak jantzi eta ikasturte berriari hasiera ematen baitiote. Ondoren, irailaren 7an (asteazkena) San Miguel ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzetako ikasleak eskolaratuko dira. Irailaren 9an, Mendaur Institutuko DBHko ikasleak ikasgelak beteko dituzte. Animo, ongi hasi, poliki-poliki erritmoa hartu.

Eskoletako garbiketa Udalak bere gain hartu du

San Miguel eta Mendaur ikastetxeetako garbiketaren zerbitzua kanpoko enpresa bati esleitua egon ondotik, Udalak zuzenezko kudeaketaren aldeko erabakia hartu du. Erabaki hau zerbitzua hobetzeko egin da, orduko purua handitu baita, %25a, hain zuzen ere. Langileak legeak ezartzen duen betebeharrari jarraituz subrogatuak izan dira.

Laxoan azpitxapeldun

Aurten XXXVII. aldiz jokatuko den Baztan-Erekako Laxoa Txapelketan azpitxapeldun izan da herriko taldea, Doneztebe The Moment. Finalean 9-4 galdu zuten Iurretako taldearen kontra. Taldean Pascual Bertiz, Koldo Legarra, Jokin Arraztoa eta Javier Bertiz ari ziren. Xehetasunak kiroleko orrialdean irakurgai.

ONGI PASA BESTAK!
Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttppi.eus

ZUBIETA

KULTURA → HERRIKO FESTEN ERREPASOA

Herritik sortu eta herritarrek gozatutako festak

85 urtetik gorako 12 herritarrek jaso dute omenaldia

F. ETXEKOLONEA/I. ZUBIALDE

Herriko festetan protagonista izan bada, aurtengoan ere herritarrik izan dira. Jendea lanerako eta festarako gozoz zegoen eta hori nabaritu da emaitzan. Gainera, festa aurreko asteburuan ere hasi zen herria girotzen, Errandonea tabernaren atarian antolatu zuten kontzertuarekin.

Abuztuaren 14a izan zen egunik jendetsuenetakoa eta arbola altxatzeak bete urte batez ere ikusmin handia piztu zuen.

Abuztuaren 15ean, Amabirjin egunez, omenaldia eskaini nahi izan zuten Udalak, 85 urtetik

gorako herritarrei: Tomasa Gorosterrazu, Pedro Elizalde, Luis Mutuberria, Jose Arbelaiz, Micaela Baleztena, Julia Hualde, Francisca Santesteban, Maria Santesteban, Nicolasa Santesteban, Ezequiel Santesteban, Pedro Jose Hualde eta Juliana Mutuberria.

Abuztuaren 16an, goizean goizetik ekitaldi asko izan ziren: umeen krosa, pilota partidak... Mus txapelketan 15 bikotek parte hartu zuten eta Iratxe Telletxea eta Bautista Loiarte izan ziren irabazleak. Arratsaldean berriz, Saltsako Loreto eta Iratxeren tortilla izan zen goxoena epaimahaiaren ustez eta bigarren Dandaineako Enriquerena geratu zen.

Abuztuaren 17an, goiz eta arratsaldean haur jokoz bete zen herriko plaza. Goizean gurasoen antolatutako jokoetan



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Giro politean joan dira aurtengo bestak.

ibili ziren eta arratsaldean Jokolandiakoek antolatutakoetan ibili ziren gustura. Umeen eguna ospatu zen eta bazkarian 80 haur elkartu ziren.

Abuztuaren 18an, festetako azken eguna izan zen eta bukaera boro-bila izan zen. Eguerdian bertso bazkaria egin zen eta 60 lagun inguru elkartu ziren. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiok

saio oso polita eskaini zuten. Pala Txapelketa mistoko finalak ere jokatu ziren eta Beñat eta Mikelek 22 eta 19 irabazi zieten Naroa eta Joxeani. Haurren pilota finala Malen eta Aitorrek irabazi zuten. Gauetz, eta aurten lehen aldiz, estalpean zingarrak jatea antolatu da eta Salaberri soinu-joleak giro aparta jarri du. 02:30 aldera arbola botata bu-

katu ziren festak. Bigarren urtez, arbolari kaskoa moztu zioten eta hala, txiki-ek helduak imitatu, bizkar gainean hartu eta plazatik atera zuten.

Heriotzak

Abuztuak izan du egun tristerik ere, Calixto Jaurarena eta Periko Elizalde herritarrek joan baitira gure artekin. Doluminak familiei.

ABUZTUAREN 11, 12 ETA 13AN

Giza eskubideen inguruko film emanaldiek arrakasta izan dute

F. ETXEKOLONEA

Festa aurreko egunetan, hiru pelikulatxo ikusteko aukera izan genuen herrian: *Difret*, *Coria y el mar* eta *Le cochon de Gaza*. Udalak antolatutako ekitaldia izan zen eta giza eskubideen gaiak lantzen dituzten filmak dira hirurak. Jatorrizko bertsoan, euskarazko azpituluekin ikusteko aukera izan genuen Filmazpit programari esker. Filmazpit, Zineuskadi elkarteak euskarazko azpituludun zinema zabaltzeko finantzatzen duen programa da. Harrera ona izan dute filmeek eta udan halako ekitaldiek jende gutxiago bildu ohi dutela jakinda, gustura zeuden antolatzaileak. Sortu zen interesa ikusita, negu aldera beste emanaldi bat antolatzeko asmoa dute.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako tailerra

Abuztuaren 8an genero indarkeriaren aurkako tailerra egin zen. 14 urtetik gorakoei zuzenduta zegoen tailerra eta Oihana Calderon aritu zen gidari lanetan. Bi orduko saioa izan zen eta indarkeria mota desberdinak identifikatzeko bitartekoak eman eta ariketen bidez landu zuten gaia.

ZUBIETA/ITUREN

ZUBIETA → MENDI ITZULIA PIRINIOETARA

Euskal Herriko tontorra zapaldu ondotik gehiagorako gogoz

Hiru Erregeen Mahaian izan dira hamahiru herritar

TTIPI-TTAPA

«Denak pozik eta oso gustura». Halaxe gelditu zen herritar talde bat joan den abuztuaren 20an Hiri Erregeen Mahaian egindako ateraldiaren ondotik. Mendiak 2.446 metro ditu eta Euskal Herriko mendirik garaiena da.

Bestondoarentzako tarterik ez dute izan. Festak abuztuaren 18an akitu eta biharamunean abiatu baitziren alderdi hartara. Gaua Lintzako aterpean pasatu zuten, eta arratsean eguraldi txarra egin zenez, biharamunean,



UTZITAKO ARGAZKIA

Argazkiko kuadrilla hau abuztuaren 20an Hiru Erregeen Mahaian izan zen.

eguraldiagatik, mendira igotzeko zalantzak ere izan omen zituzten. Azkenean, ordea, saiatzea erabaki zuten. Baita lortu ere. Eguraldiak lagunduta, sei ordu eta

erdiz egin zuten buelta.

Adin desberdinetakoa hamahiru lagun animatu ziren: Patxi, Urko, Igor, Joseba, Dabid, Yolanda, Ernesto, Maritxu, Mikele, Maialen, Naroa,

Eva eta Josu.

Egindakoarekin kontent, errepikatze gogoz gelditu direla kontatu digute eta orain beste ateraldi bat omen dute buruan.

ITUREN

Egur lotea eskatzeko epea zabaldu du Udalak

Arkaitz MINDEGIA

Arrantzelai parajeen egur loteak (pago egurra) markatuko ditu Udalak. Jakinarazi duenez, loteak etxean entregatuko dira eta zazpionatingurukoak izanen dira. Egurra atera eta garraiatzeko kostua ordaindu beharko da. Udalak oraindik ez du prezioa zehaztu, baina duela bi urte jarritakoaren antzekoa izanen dela iragarri du. Gehienez bi lote eskatzen ahal izanen dira familia bakoitzeko eta egurra herriko lursailean uzten baldin bada, hilabete epean moztu beharko da. Interesatuek udaletxean eman beharko dute izena irailaren 10a baino lehen.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udako merkealdia

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toaillak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

DONAMARIA

MAPA → UDALAK ETA ZERBITZUEK ELKARLANEAN

Herriko mapa turistiko berria argitaratu dute

Interes kultural eta naturala duten eraikin, ibilbide eta zerbitzuekin

kultural aberatsa du: elizak, baserriak, garbikak... baita Erdi Aroko dorretxe bat ere, Donamariako Jauregia.

Landetexe eta ostatuaren zerranda eta herriaren barna egin litezkeen ibilbideak ere kokatu dituzte mapan.

Interesa dutenek eskuragarri izanen dituzte mapa turistikoak berrieak bertze herriko etxean, ostatuaren eta landetxeetan.

TTIPI TTAPA

Donamaria-Gazteluko Udalak eta herriko zerbitzu turistiko desberdinek elkarlanean osatu dute mapa turistiko berria. Bertan, herria ezagutu, bertako gastronomia dasatu eta natur inguruneaz gozatzeko hamaika aukera jasotzeko eta informazio interesgarria bildu dute.

Herriak ondare arkitektoniko eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguraldia lagun, giro bikaina izan zen bestetan

Abuztuaren 14tik 18ra bitartean ospatu ziren Donamariako bestak eta herritarren parte hartze handia izan da. Bezperan, txupinazoa baino lehen, herri kirolak izan ziren eta aurtengoan, lehen aldiz haurrek parte hartu zuten ikuskizun polita eskainiz. Ondotik gazteak ez hain gazteen kontra aritu ziren, eta aurtengoan ere gazteak izan ziren irabazle. Haurren saioan, talde urdinak irabazi zuen. Bi talde irabazleek bota zuten txupinazoa. Abuztuaren 16an, gazte eguneko paellada autogestionatua jendetsua izan zen eta ondotik 20 goitibehera inguru jeitsi ziren Artzetik beheitik. Abuztuaren 17an ospatutako mus txapelketan Angel Mari Larraburu eta Alfredo Mendiberri izan ziren irabazleak eta ondotik egindako patata tortilla eta postre lehiaketetan Loli Mindegiaren eta Txaro Jorajuriaren taldeek. Azkeneko egunean, herri bazkarian, 160 lagun inguru bildu ziren. Bazkaldu ondoren ohitura da bertsolari eta soinulariekin komentura bisita egitea baina aurten, moja baten heriotza dela eta, bisita hori ez zen egin. Horren ordez, herriko ostatuaren bertso-poteoa egin zen Oihana Bartra eta Oihana Iguaran bertsolariekin eta Aurtizko trikitilariekin. Komentura joan ez baziren ere, giroa ezin hobea izan zen.

II. ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

Eskualdeko paisaia, bestak, txokoak, herritarrak, animaliak... ez ote dira urrutikoak bezain ederrak? Guk baietz uste dugu eta horregatik, eskualdean ateratako UDAko argazki ederrenaren bila lehiaketa antolatu dugu. **Argazkiak bidaltzeko epea:** Ekainaren 16tik irailaren 11ra arte.

erran.eus
Mendialdeko Albistek

Informazio +
erran.eus



SARIAK

BESARO LANDAHOTELA
Itzaltzu - Iratiko Oihana
Tel: 948 890 350
www.besaro.es



EPAIMAHAIAREN SARIA:
BESARO LANDAHOTELAn
asteburuko egonaldia
2 lagunendako.

Info +



HOTEL BENTA ETXALAR
NA121 km60, Etxalar
Tel: 948 635 000
www.etxalar.com



ERRAN.EUSEKO
ERABILTZAILA SARIA:
ETXALARKO BENTAn
2 lagunendako otordua.

Info +



BAZTANGO ZAPOREAK
Baserritik mahairat,
maitasunez eginak
amalurra zainduz



Parte-hartzaileen artean
BAZTANGO ZAPOREAK
produktuekin osatutako
saskia zozketatuko da.

Info +



OSPAKIZUNAK → BESTEN ERREPASOA

Giro bikaina izan da aurtengo bestetan

Kontxita eta Ramonak bota dute altxaferoa

Fernando ETXEBERRIA

Abuztuaren 13tik 17ra bitartean ospatu dira herriko bestak. Bi berrikuntza azpimarragarri izan dituzte aurtengo bestek eta biek izan dute harrera ona. Orain artean, Udaleko kideek bota ohi zuten besten hasiera iragaritzeko suziria baina aurtengo herriko bi emakume, Kontxitak eta Ramonak izan dute ohore hori. Hunkituta jaso zuten albistea eta pozik zeuden oso egunean bertan. Herriko haur eta gaztetxoek aurtengo bestetan izan duten protagonismoa ere azpimarratu behar da, egitaraua prestatzerako orduan saiakera berezia

egin da eta jokoetan parte hartuz, pilota partiduetan jokatu eta animatuz... emandako erantzuna oso ona izan da.

Urtero bezala bezperan, Barranka ostatuan egin zen afariarekin eman zitzairen hasiera beste eta mahaiaren bueltan bilduta, giro bikaina izan zen.

Abuztuaren 14an, aizkora soinuak izan ziren eguneko protagonista. Herri kirolen bueltan jende asko bildu zen eta tentsioa nabaria zen, Nafarroako hirugarren mailako finala zegoelako jokoan. Bost aizkolarari aritu ziren lanean eta 45 ontzako bi enbor eta beste bi kanaerdiko moztu behar izan zituzten. Guztietan bizkorrena Patxi Mindegia zubietarra izan zen.

Abuztuaren 15ean, goizean, mezaren on-



ARGAZKIAK: F.ETXEBERRIA

Herriko plazak itxura ederra hartu zuen bestetan.

dotik, Iruñea dantza taldeak emanaldia eskaini zuen. Arratsaldean, umeak izan ziren protagonista, jokoak eta txokolatada antolatu ziren beraientzat eta herritarren arteko herri kirol desafioa ere jokatu zuten.

Abuztuaren 16an, mus txapelketa bikotek askok hartu zuten parte eta arratsaldeko umeen pilota partiduek ere ikusmin handia piztu zuten.

Abuztuaren 17an beste bukaera borob-

la emateko, herri-bazkaria egin zen eta 80 pertsona inguru bildu ziren. Gero, ohikoa denez, mariatxiek dantzan eta kantuan aritzeko aukera izan zen. Puro Relajo taldea izan zen aurtengo gonbidatua eta herritarrak, aunitz kanturako duten afizioa eta trebezia erakutsiz, gogotsu aritu ziren beraiekin batera kantuak. Gauera arte luzatu zen gero dantzaldia, Joxe Angel akordeoilariaren eritmorra dantzan. Ha-

si, bezalaxe bukatu, giro bikainean egin ziren. Azpimarragarria da, herritarrek izan duten parte hartzea. Bestak iritsi aurretik eta besta garaian egindako auzolana ere ezinbestekoa izan da guztia ongi ateratzeko zedin. Abuztuaren 13an adibidez, kaleak garbitu eta txukuntzen aritu ziren eta oholta ere beraiek jarri zuten frontoian.

Animo! Gutxiago gertatzen da eta datozten urteko bestetarako!

UZTAILEAN

Txantxangorri ehiztarien elkarteak bilera egin du

Fernando ETXEBERRIA

Udako oporrak bukatu eta udazkena ate joko dagoela ikusita, herriko ehiztariak bilera egin dute. Elkartearen egungo egoera ekonomikoari buruz aritu dira solasean eta ehiza denboraldia hasi aurretik egin beharreko lanak zeintzuk diren ere zehaztu dute. Usategietara dozen bideak garbitu beharko dituzte, hondaturik dauden postuak txukundu eta egoera txarrean dauden postu bat kentzea adostu dute.

Aurten gainera, ehiza postuak erabili ahal izatea Txantxangorri elkarteak Udalarekin zuen hamar urteko akordioa bukatzen da. Udalarekin negoziatu eta berriro ere baimena lortzen saiatuko dira ehiztariak.

KONTSULTATU GURE TELEFONO GIDA



erran.eus
Mendialdeko Albisteak



ORAIN INTERNETEN

OIZ

BESTAK → IRAILAREN 8TIK 11RA

Amabirjinaren egunean hasi eta besta giroa lau egunez



ARGAZKIAK: ALBERTO SAN MILLAN

Ortziral arratsaldean gazte eta helduen arteko herri kirol saioa izanen da

TTIPI-TTAPA

Lau eguneko bestak antolatu dituzte Oizen. Irailaren 8tik eta 11ra arte kirola, musika, jan eta edanak, dantzak... izanen dira nagusi plazan eta ostatuan:

ORTZEGUNA, IRAILAK 8

- 11:00 Altxaferoak eta ondoren kalejira.
- 12:00 Meza nagusia eta ondoren luntxa Herriko Ostatuan.
- 17:00 Haurrendako jo-koak eta ondoren txokolatada.
- 21:00 patata tortilla lehiaketa eta segidan herrikoen arteko afaria.

- Arratsaldean eta gauaz dantzaldia Joxe Angelekin.

ORTZIRALA, IRAILAK 9

- 11:00 Gaztetxoan arteko pilota partidak.
- 16:30 Haurrendako Grand Prix.
- 18:00 Gazte eta helduen arteko herri kirolak.
- 21:30 Zopak Herriko Ostatuan.
- Arratsaldean eta gauaz dantzaldia Joxe Angelekin.

LARUNBATA, IRAILAK 10

- 11:00 Gazteen arteko Laxoa partidak.
- 11:30ean Mus txapelketa.
- 17:30 Doneztebeko dantzarien emanaldia.
- Goiz eta arratsaldean Jumping puzgarria,
- Arratsaldean eta gauaz dantzaldia Oharkabeta aldearekin.

Herritarrek izanen dira protagonista bertze urte batez.

IGANDEA, IRAILAK 11

- 12:00 aizkora apus-tua: Labaiendarren arteko erronka. Ondoren Julen Kañamaresek erakustaldia eskainiko du motozerrarekin.

- Eguerdian herri bazkaria euskal musikarekin alaituta.
- Arratsaldean toka eta sokatira txapelketa.
- Gauerdian Gaixoa ni eta besten amaiera.

OHARRA

Egunero haurrendako koltxonetak jarriko dituzte.

OIZKO UDALA · NAERROZ

Oizko Udalak besta zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitari guziei

OITZEKO OSTATUA *ongi pasa bestak!*

Eguneko menuak, asteburuko menuak, menu bereziak (enkarguz), plater konbinatuak, bokatak eta errazioak.

Irailaren 9an zopak. Erreserbak egin daitezke.

Karrika bakarra, 43 · T. 948 11 05 66 · 31751 Oiz

EZPELURA ITURGINTZA

Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emaila
Biomasa • Aerotermia

T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com

BESTAK → IRAILAREN 7TIK 11RA

Aizkora, pilota eta mariatxi doinurik ez da faltako festetan

Berdintasunaren aldeko Zumba saioa antolatu dute ostiralean

TTIPI-TTAPA

Irailaren 7tik 11ra ospatuko dituzte Eratsungo bestak eta aurrez berdintasunaren aldeko tailerra eginen dute.

LARUNBATA, IRAILAK 3

• 17:00 Berdintasunaren aldeko tailerra.

ASTEAZKENA, IRAILAK 7

• 21:00 pesta bezperako afaria.

OSTEGUNA, IRAILAK 8

- 09:00 Txupinazoa eta diana.
- 11:30 Meza nagusia eta ondoren luntxa.
- 12:30 Aizkora apustua: Oier Kañameres eta Migeltxo Mindegia, Ander Erasun eta Palaxioren aurka.
- 18:00 Lau t'erdiko pilota partidak: Olaizola I eta Otxandorena Olazabal eta Escuderooren aurka.
- Gaez eta arratsaldez dantzaldia Oihana eta

Oihana soinu-joleekin.

OSTIRALA, IRAILAK 9

- 11:00 Mus txapelketa eta sari banaketa.
- Goiz eta arratsaldez haurrentzako jokoak.
- 18:00 Berdintasunaren aldeko Zumba.
- 20:00 Puro Relajo mariatxiak.
- Gaez dantzaldia Endara Deejaysen eskutik.

LARUNBATA, IRAILAK 10

- 12:00 Etxez etxe kalejira ilunberriko txarangarekin.
- 14:00 Herri bazkaria bankako abeslariarekin eta Guillermo Segurola txiste kontalariarekin.
- 17:30 Jotak Voces Navarras taldearen eskutik.
- 19:00 Doneztebeko dantzariak.
- Arratsalde eta gaez dantzaldia Endara Deejaysen eskutik.

IGANDEA, IRAILAK 11

- Goiz eta arratsaldez puzgarriak herriko plazan.
- 12:00 Tortilla txapelketa eta postre txapelketa.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Tortilla eta postre txapelketa eginen dituzte bestetako igandean.

- 13:30 Tortilla eta postre txapelketako sari banaketa.
- 14:00 Paella eta tortilla bazkaria plazan.
- 16:00 Ipuin kontaketa saioa Txefo eta An-

- duriñaren eskutik.
- 18:00 Pilota partidak. Lau t'erdian Salaberria eta Apezetxea ariko dira aurrez aurre. Ondoren, binaka Elizalde eta Olaizola ari-

- tuko dira Urbieta eta Gorrotxategiren aurka.
- Arratsaldez eta gaez dantzaldia izanen da Oihana eta Oihana soinu-joleekin.

Erantsungo Udalak
besta zoriontsuak opa dizkizue

ORBELA
SENDERISMOA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ARKUPEAK

GIZARTEA → URTE ERDIKO BALANTZEA

Iaz baino 6.850 euro gehiago izanen dira dirulaguntzetan

2017ko bidaien aurreproiektua ere aurkeztu dute, zenbait berrikuntzekin

Fernando ETXEBERRIA

Uztailaren 21ean bildu zen Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzordea. Bertan jakinarazi zenez, Nafarroako Gobernutik iaz baino 2.850,74 euro gehiago jaso dira dirulaguntzetan. Zehazki, funtzionamendu eta pertsonalarendako 7.406,75 euro jaso dira aurten (iaz 7.394,07 euro) eta programak gauzatzeko 9.591,12 euro (iaz 6.753,06 euro). Nafarroako Kutxa Fundazioak ere 6.000 euroko laguntza eman du aurten, eta iaz 2.000 euro. Beraz, denera iaz baino 6.850,74 euro gehiagoko laguntza izanen du Arkupeak elkarteak.

LEHEN URTE ERDIAREN BALANTZEA

Aurrez iragarritako ikastaroetan 197 lagunek parte hartu dute eta horrek 2.009,48 euroko defizita sortu du. Bidaetan 1.502 bazkidek parte hartu dute eta 681,91 euroko superabita utzi dute. Literatur lehiaketan zortzi lagunek parte hartu zuten eta www.arkupeak.com webgunea martxan dago eta gai ezberdinak

kontsulta daitezke: estatutuak, argazkiak...

BIGARREN URTE ERDIKO PROGRAMAZIOA

2016ko bigarren sei hilekoan honako ikastaroak eskainiko dira: memoria tailerra, dantza, aquagym, luzapenak, yoga, taila eta pirograbatua, lorezaintza, informatika eta argazki-erretokea, frantsesa eta pintura.

Bidaiei dagokionez, Baltikoko herrialdeetara egin beharreko azpimarratu behar da, baita Bazkidearen Eguna ere. Egun horretan lehiaketako sariak banatuko dituzte. Elizondon, Donostian eta Leitzan erakusketak egingen dira eta aurreikusitako solasaldiak emanen dituzte. Hilabetero egiten diren mendi ateraldien baitan, Arantzazutik Aizkorriara igotzea eta beharbada Gorbea, Saioa eta zehaztuko diren bertze ateraldi batzuk egingen dira.

2017RAKO AURREPROIEKTUA

Datorren urterako aurreproiektua ere aurkeztu zuen bidaien batzordeak. 2017an, ohiko bidaiekin batera, Portugal, Gaztela, Pasaia, Bardeak, Bizkaiko kostaldea, Getaria eta bertze zenbait txoko bixitatu nahi dira. Mendi irteerekin ere segituko dute.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Mendizaleak Etxalarren

Elkarteko 42 mendizale Etxalarren barna ibili ziren uztailaren 19an. Azkuara igo ondotik, Sualar eta Gorospilen barna pasatu ziren eta hemen ehiztarien gonbidapena jaso zuten. Oilo granja bisitatuz bukatu zuten ibilaldia eta gero ederki bazkaldu zuten La Basque jatetxean.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Aralarren San Joakin eta Santa Ana ospatuz

Aitaxi-amatxien patroiren San Joakin eta Santa Ana ospatzeko 250 bazkidek Aralar eta Iruña bisitatu zuten uztailaren 26an. Goizuetako Apezetxea apezak emandako meza aditu zuten Aralarren eta handik Iruñera joan ziren, Tres Reyes hotelean bazkaltzera. Joxe Angelen musika doinuekin bazkalondo goxoa izan zuten eta hiriburua bisitatzeko aukera izan zuten.

JUBILOTEKA ETA FRANTZIAKO PENTSIOAK

Eman hartaldeak jubilotekak irekitzeko proiektua aurkeztu zuen duela denbora bat. Interes handiko gaia da eta Arkupeak elkarteak behar diren gestioak egingen ditu egitasmo hori gauzatu ahal izateko dirulaguntzak lortzeko. Beste aldetik, inguruko hainbat pertsonen Frantzia aldean lan egin zuten eta beraien erretiroa kobratu ahal izateko gestioak egin behar izan ziren. Aurten, 14 lagunek lortu dute bere egoera erregulartzatzea.




ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Kantabriara bidaia

Uztailaren 4 eta 5ean Arkupeak elkarteko 69 bazkidek Kantabria aldera bidaia egin zuten. Lehen egunean Santillana de Mar, Comillas, Cóbrecos eta Santander hiriburua bixitatu zituzten. Biharamonean, Cabárceno ikusi eta etxera bueltatu ziren, Castro Urdialesen bazkaldu eta gero.

KIROLA → X. EDIZIOA

Plazaolako Naturbideko maratoia eta maratoi erdia irailaren 11n



Maratoia Lekunberritik eta maratoi erdia Leitzatik abiatuko da

JM BARRIOLA

Plazaolako trenan ibili ohi zen parajeetan lasterka egiteko aukera izanen da irailaren 11n. Maratoia eta maratoi erdia antolatu ditu Kataluniarako Diversport enpresak,

Plazaola Turismo Partzuergoak bultzatu eta eskualdeko Udalen laguntzarekin. Lekunberritik Andoainera arteko bidea egin beharko dute maratoia egiten dutenek (42 km) eta maratoi erdia egin nahi dutenak Leitzatik atera eta Andoainen izanena dute helmuga. Izena eman edo informazio gehiago eskuratu nahi duenak www.maratonviasverdes.com/es/plazaola helbidean topatu dezake.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikel Alkozen lanak apainduko du informazio puntua

Mikel Alkoz herriko artista gaztea informazio puntuko paretetan margolan berezia osatzen ari da. Udalak egin dio Leitzako nortasuna adierazten duten mural bat osatzeko eskaria. Aurreko aldean ezpatadantzariak, gizonezko bat eta emakumezko bat margotu ditu. Ezkerreko aldean kirolariak landuko ditu eta ihoteria. Eskuinean gure inguruko pertsonaia mitologikoak agertuko dira eta atzeko aldean baserri bat eta naturako elementuak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Datorren urtekoen esperoan!

Aurtengoan ere borobilak izan dira Santiburtzioak. Parte hartze handia izan da egin diren ekitaldi guztietan: ezpatadantzariak, xexenak, kontzertuak, herri kirol erakustaldiak, bazkariak, afariak... guztia giro ederrean!

GIZARTE ZERBITZUEN ESKUTIK

Aisialdiaz gozatzeko modu berezia izan da udan, ur festa eta ligoteo tailerraren bidez

JM BARRIOLA

Azken urteetako ohitura da bata, ekitaldi berria bestea. Harrera ona izan dute Gizarte Zerbitzuek uda honetan antolatu dituzten bi ekitaldiek. Ur festa uztailearen 29an, gauetz, ospatu zen. Gozamenaz programaren baitan egiten den festa da eta eskualdeko Gizarte Zerbitzuek, Leitzako Kiroldegiak eta Andraizeko Emakume Zerbitzuak antolatu dute azken hamar urteotan. Aurten, 93 lagun hurbildu ziren eta ordu erdi lehenago, atea joka ibili ziren sartzeko gogoz. Euria egin arren, guztiak sartu ziren uretara. Orokorrean, balorazio ona egin zuten antolatzaileek eta festaren helburua erabat bete zela diote «gogoz gozatzea, kanpoko oztoporik gabe: drogak, aurreiritziak, itxurak, modak...».

Gozamenaz programaren barruan, Ligoteo Tailerra ere egin zen Leitzako Gazteekin. Tailerraren helburua ez zen ligatzen ikastea, fenomeno horren azterketa egin eta euren buruarekiko ezagutza lantzea zen gehienbat helburua, horrekin, ligoteo sanoago bat landuz. Tailerrera 15 lagun joan ziren eta gustura gelditu ziren emaitzarekin. Proposatutako iharduera guztietan parte hartu zuten eta jarrera irekia izan zuten.

ARESO

KIROLA → IRTEERA 08:00ETAN

Aresoko IX. Mendi Martxa irailaren 4an

21 kilometroko luzera eta 1.250 metroko desnibela du ibilbideak

Juana Mari SAIZAR

Iraileko lehenbiziko iganderako prestatu dute mendizaleentzako hitzordu berezia. Bederatzigarren edizioa beteko du Aresoko mendi Martxak eta goizeko 8etan izango da irteera. 21 kilometroko luzera eta 1.250 metroko desnibela duen ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek.

Aresoko plazatik abiatuta Ulizar, Urkita, Pagozelai eta Lau Mugarietatik (Guratz) pasatu ondoren Aresora

itzuli beharko dute. Batzaz beste, 4 edo 5 ordu inguruan bukatu ohi dute proba mendizaleek. Bidean, indarrak hartzeko, edariak eta jakiak ere jarriko dituzte antolatzaileek.

IZEN EMATEA EGUNEAN BERTAN EDO AURRETIK

Izen-ematea alde aurretik internet bidez edo egunean bertan, proba hasi baino ordu bete lehenago plazan egin liteke. Izen-ematea irailaren 2a baino lehenago egiten dutenek 12 euro ordaindu beharko dituzte eta egunean be-
rean egiten dutenek 15 euro. Proba bukatu eta kamiseta jaso eta gero herritarrek prestatutako paella bazkaltzeko aukera izango da sagardoarekin.

Ba al zenekien

Iraileko lehenbiziko igandean erromeria egingo dela San Migelera.



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

Aurtengoak ere, pesta dotoreak!

Bost egunez dantza, kirola, musika... eta batez ere umore onez bete zen herriko plaza. Azken egunera ar te luzatu zen gainera pestarako grina, Joselu Anaiak taldeak jendetza bildu zuen beste urte batez. Parte-hartzea ere handia izan da, bezperatik hasita, gustura ibili ziren jolasean haurrak eta lehia polita piztu zen gazte eta gurasoen arteko herri kiroletan. Herri bazkariak, bertsolariak, aizkolariek, barrikoteak... ere jendetza bildu zuten. Kuadrillen eguna ere zoragarria izan zen, herria kolorez bete eta alaituz. Txarangarekin batera herrian buelta eman ondoren paella jan eta ondoren kuadrillen arteko jokoak izan ziren. Aurten gainera lehenbizikoz saria zuen talde irabazleak eta horrek ikusmina areagotu zuen. Talde arrosak eta beltzak lehia estua izan zuten baina azkenean beltzak izan ziren gazta eta urdaiazpikoa eskuratu zituztenak. Puntu gutxien bildu zuen taldeak berriz, plaza erdian dantzan aritu behar izan zuten; *Aresoko pistaxoek* ederki mugitu zuten gerria. Ondoren herriko ingurutxoak dantzatu zen eta jende asko elkartu zen, kolore eta adin guztietakoa, plaza guztia betez.

ARANO

Miaxiria aldizkaria osatzeko laguntza eskatu dute

Garai bateko esamoldeak bildu nahi dituzte

Ainhoa ANSA

Aspaldi Aranon entzun ez duen espresio, esaera zahar edota hitza papertxo batean idatzi eta kontsejun jarritako kajatxoan sartuz lagundu dezakete herritarrek. Denen ar-

tean garai bateko esamoldeak berreskuratzeko lan polita egin dezakegu.

Txakurren txertaketa

Irailaren 14an albaitaria etorriko da plazara txakurrak txertatzera. 16:00etan egin du hitzordua. Surotik ere pasako da. Interesa duena agertu dadila.



UTZITAKO ARGAZKIA

Aranotik Urnietara mendi martxa

Abuztuaren 8an, Aranotik Urnietarako mendi martxa egin zuten hainbat herritarrek. Argazkia dotore ateratzeaz gain, sasoi ederrean daudela ere erakutsi zuten!

GIZARTEA → GIPUZKOAK ETA NAFARROAK

Herritarren historia klinikoak partekatuko dituzte

Pazienteen segurtasuna eta jarraipen medikoa hobetuko dira horrela

TTIPI-TTAPA

Goizuetako kontsultategian lan egiten duten osasun-arloko langileek Goizuetan eta Aranon bizi diren eta Donostia Unibertsitate Ospitalean eta inguruko zentroetan laguntza mediko espezializatua jasotzen dutenen historia klinikoak ikusi ahal izango dituzte aurrerantzean. Modu berean, azken laguntza-zentroetako langileek pazienteen Osasunbideko historia

klinikoak ikusi ahal dituzte.

Hala, bi herrietako 688 biztanleren segurtasuna eta jarraipen medikoa hobetuko dira. Izan ere, gertutasuna dela eta, aipatutako zentroetan jasotzen dute espezialisten arreta, Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko osasun-laguntzako lankidetzaren esker. Orain arte, txosten medikoetan jasotako edo pazienteak ekarritako informazioa besterik ez zeukaten Goizuetako osasun-langileek. Baina, hemendik aurrera, historia klinikoan eta izandako kontsultetan gehituko txosten medikoak eskuratu eta ikusi ahal



UTZITAKO ARGAZKIA

Herrian egindako koordinazio-bileran izan ziren Nafarroa eta Gipuzkoko osasun-langileak.

izango dituzte.

Bi osasun-zerbitzuetako ordezkariak eta arreta ematen duten osasun-langileek bilera

egin zuten Goizuetan, batetik bestearen historia medikoak eskuratzeko protokoloak zehazteko, sarbidea ahalbide-

tzen duten sistema informatikoak ezagutzeko eta sor litezkeen gora-beherak konpontzeko neurriak ezartzeko.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

IRAILAREN 16 ETA 24AN

Biodantza ezagutzera emateko bi saio egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Biodantza zer den ezagutarazteko bi saioa egingen dituzte irailaren 16an, ostiralean 16:30etik 18:00etara eta irailaren 24an, larunbatean 10:30etik 12:00etara Udaletxeko ganbaran. Saioa doan izanen da, ez da inongo adin mugarik edo prestaketa fisikoren beharrik, ezta ongi dantza egin beharrek ere. Libre mugitzeko arropa eroso eramatea eta ongi pasatzeko gogoekin joatea besterik ez du eskatu Teresa Lopez de Munain irakasleak. Biodantza zer den ezagutu eta gozatzeko aukera irekia izanen da, lagun guzti-entzako.

Herriko festak, umore onaren adierazle!

Umeen eta gazteen egunekin motorrak berotu ondotik, abuztuaren 14an hasi ziren ofizialki festak. Abesbatzako kide gazteenak eta beterranoenak bota zuten txupinazoa eta suziria lehertuta, bost egunez luzatu zen festa. Giroa bero eta barrutik eta kanpotik ongi bustita ibili dira herritarrak. Peñen eguna, zezeak, sagardo probaketa... datozen urtekoak noiz ailegatuko zain dira honezkerok!

BAZTAN

KULTURA → IRAILAREN 2 ETA 3AN

Txuribeltz Festibala antolatu du Baztango Blues Elkarteak

Lekarozko aterpean bilduko dira bi egunez musika mota honen zaleak eta musikariak

TTIPI-TTAPA

Blues musika maite dutenek huts egin ezin duten hitzordua daukate iraileko lehen aste-

buruan Baztanen. Baztango Blues Elkarteak lehen aldiz Txuribeltz Festibala antolatu du Lekarozko aterpean.

Irailaren 2 eta 3an Naco Goñi y los Buescavidas, Spanish Blues Harp Attack (Naco, Mingo, Danny Boy, Joan Pau Cumellas eta Antonio Serrano), Miki Nervio y los Bluesmakers, Big Mama Montse, Sister Marion eta Tofol Martinez, Paul San Martin

GIZARTEA → SAHARAKO UMEAK BAZTANEN

Ume sahararren bakelekua bisitatzera etorri zen Uxue Barkos

Aroztegia... eta gero zer? plataformak elkarretaratzea egin zuen eta lehendariaren jarrera "hipokrita" salatzeke

TTIPI-TTAPA

Oporrak bakean programaren baitan, Saharaztanen bitartez eta hainbat norbanako eta erakunderen laguntzarekin, 30 neska mutiko egon dira aurten gure herrietan: 10 hemengo familien etxeetan eta bertze 20 Elizondoko Lanbide Eskolan lehen



ARGAZKKA: JUAN MARI ONDIKOL

Herriko musikari gazteek parte hartu dute Karrikaldian

Baztan arte adierazpide askoren sorburua izan dela eta badela jakina da. Musika alorrean, ez da gutxiagorik gertatzen, eta hori dela eta, Karrikaldia izeneko egitasmo berriarekin Udalak herriko musikari gazteak bultzatu ditu udan honetan, Erratzu eta Amaiurko plazetan eta Elizondoko Ziga margolariaren plazan egindako emanaldietan, herri horien eta Bertan elkartearen laguntzarekin. Baztango Musika Eskolan hainbat gaztek ikasten dute eta modu honetan bai bertakoei bai bisitariei haien lana erakutsi zaie. Karrikaldian pieza instrumentalak eta abestuak entzun dira, batzuk bertsoak eta bertze batzuk obra propioak. Elizondoko Ainara Aginaga, Irurritako Miren Ballarena, Oronozko Xabi Gaztelu, Elizondoko Ion Maiordomo, Azpikuetakoko Enara Arregi eta Oronozko Olaia Inziarte izan dira aurten parte hartu duten musikari gazteak

eta Iker Piris musikariak espero dituzte, bertze zenbaiten artean.

Duela urtebete sortu zen Baztango Blues

Elkarteak Euskal Herriko blues zaleak biltzea espero du eta festibala nahitaezko hitzordua bilakatzea. Gaur egun 87

bazkide ditu elkarteak eta 14 hilabetez 20 bat kontzertu antolatu ditu, batez ere Elizondoko llogi ostatuan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko bakelekuan egon diren 30 neska-mutikoekin batera, Uxue Barkos lehendakaria, Joseba Otondo alkatea, Maite Ariztegi zuzendaria, Saharar Frente Polisarioko Mohamed Galiami, ANAS elkarteke Carol Garcia eta Saharaztaneko Mikel Gereka.

aldiz antolatu duten bakelekuan. Abuztuaren 19an Uxue Barkos lehendakariaren bisita izan zuten, bertze ordezkari batzuen artean.

AROZTEGIA... ETA GERO ZER?

Uxue Barkosen bisita baliatu zuen plataformak elkarretaratzea egin eta salatzeke ha-

ren jarrera «hipokrita»: «itsasoaren bertze aldekoen eskubide urraketak salatu du baina hemengo hitzaren kontra inposaketa dabil».

TURISMO GARAPENA → ESKUALDEKO UDALERRIEK ETA CEDERNA-GARALUR ELKARTEAK

'Uraren bailarak' marka turistiko berria aurkeztu du Baztan-Bidasoa eskualdeak



URAREN BAILARAK

Baztan-Bidasoa Turismo Garapena
BAZTAN BERTIZARANA BORTZIRIAK MALERREKA

Baliabideen mapa ere argitaratu dute

TTIPI-TTAPA

2014an Baztan-Bidasoa eskualdeko udalerriek lankidetzan esparri berri bat jarri zuten martxan Cederna Garalur Elkartearen barruan, Baztan-Bidasoa Turismo Garapena deritzona. Lankidetzan esparri honen barruan, Baztan-Bidasoa eskualdeko udalerriek, Cederna Garalurreko Baztan-Bidasoa Turismo Garapenaren bitartez, *Uraren bailarak* marka sortu dute. Urak lotzen ditu bailarako herriak eta handia da urak *Uraren bailarak* markaren barruan, eskualdeko baliabideen mapa osatu dute.

Mapa horretan, eskualdeko herri desberdinetako tokirik nabarmenak agertzen dira irudikatua. Honetaz gain, eskualdeko ibilbide garantzitsuenen informazioa ere agertzen da, baita Baztan-Bidasoko turismo bulegoen informazioa ere. Hau guztia, borts hizkuntzetan eta A3 formatuan.

Mapa Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuak finantzatuta dago eta eskualdeko turismo bulegoetan edota baztanbidasoaturismoa@cederna.es helbide elektronikora mezu bat igorri eskuratu daiteke.

*Zertarako
amestu,
eskuratzeko
aukera baduzu?*

RURAL KUTXAKO MAILEGU PERTSONALAK

BIDAIA ZORAGARRI BAT, ZURE EZKONTZA, ZURE AUTO BERRIA...

MAILEGU PERTSONALA

AUTO MAILEGUA

SARTU ETA JASO ZURE MAILEGUARI BURUZKO ARGIBIDEA

BAZTAN

GIZARTEA → HIRUGARRENEZ SEGIDAN

Trafikoan aldaketak egin dituzte Elizondoko Jaime Urrutian

Asteburuetan karrika tarte bat trafikoari itxi eta oinezkoentzat bakarrik da

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 4an auzotarrekin deitutako bilkura egin ondotik, Elizondoko herriak, Baztango udalaren babesarekin, asteburuetan Jaime Urrutia karrikako tarte bat trafikoari itxi eta oinezkoentzat bakarrik uztea erabaki zuen.

Oinezkoentzako tarte hori Karrika ostatuaren paretik Ziga plazara irainokoa da eta uztailaren 23 eta 24ko asteburuetatik hasita irailaren 23-25eko astebururaino irekitzen ari dira larunbate-

tan 13:30etik hasi eta igandetako gauerdia artio.

Aipatu epealdia frogarako izanen da eta, horren ondotik, udako esperientziaren balorazioa egingen da, horrela segitzeak merezi ote duen erabakiz. Auzotarrek bertatik autoan pasatzeko eskubidea dute. Horretarako Karrika ostatuaren parean dagoen hesia pasatzeko mugitu eta, ondotik, dagokion bezala utzi behar dute.

Ibilgailuen zirkulazioa errazteko Burges karrikaren norabidea ere aldatu da. Orai, Jaime Urrutiatik Santiagorako norabidekoa da eta ez alderantziz.

Edozein zalantza edo argipenentzako Elizondoko herriko agintariengana edo Baztango Udalerat zuzendu behar da.



UTZITAKO ARGAZKKA

Amaiur eta Arizkungo mediku kontsultetan lanak egin dituzte

Amaiur eta Arizkungo mediku kontsultategietan lanak egin ditu Udalak. Amaiurkoan egongela bitan zatitu da, aldi berean, medikuak eta erizainak, bakoitzak bere gelan, eriak artatu ahal izateko. Arizkunen berriz biltegia handitu da eta barneko banaketa berrantolatu. Gainera, kanpoko sarrera breaztatu da, argazkian ageri denez. Lan hauek udal langileek egin dituzte eta denera 5.000 euroko kostua izan dute. Lan hauek osasugintzako arduradunekin koordinazioan egin dira. Herrietako kontsultategiak herritar guztiei osasungitza publikoa bermatzeko oinarritzko azpiegiturak dira eta, udalak, bere ahalmenekin, horri buruz lana egiten du.

16.200 EUROAN, AZAROAREN 30ERAKO AKITU BEHARKO DITU

Loizu hiltegiako puskatze gela akitzeko lanak Egallene eraikuntzak enpresak egingen ditu

TTIPI-TTAPA

Loizu udal hiltegiako puskatze gela akitzeko lanak Egallene eraikuntzaki eman dizkio Udalak. Lan hauek 16.200 euroan (BEZ barne) esleitu edo adjudikatu dira eta lanak azaroaren 30erako egin beharko dira. Urte berriarekin puskatze gela abiarazi nahi luke udalak.

Aitzineko legegaldian oinarritzko azpiegitura egin ondotik, orain, Nafarroako Gobernuak osasun publikoko departamentuko albaitarien azkeneko eskakizunak betetzeko

hainbat lan egingen dira: puskatze gelaren barneko konketa edo labarboa, komunaren berregitea eta urzikinen bideratzea, aratxeak puskatzeko egituraren egokitzapena, ate isolatzailea paratzea eta tripakiak garbitzeko gela egitea.

Lan hauek emateko udalak Baztango bortz eraikuntza enpresari eskaintzak egiteko gonbidapena egin zien eta horietan denetan, eskaintza hoberena lanak hartuko dituen Egallene eraikuntzak enpresak egin du.

ESPAINIAKO GOBERNUAK UDALAK AURKEZTUTAKO PROIEKTUA EZ DU ONARTU

Sumutsuko bidea konpontzeko helegitea paratuko du Baztango Udalak

TTIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuak Sumutsu eta Bidarrai arteko bidea konpontzeko Baztango Udalak aurkeztutako 143.745 euroko proiektua ez du onartu. Hala, Baztango udala erabakiarekin ados ez dagoenez helegitea prestatzen ari da. Proiektua ez onartzeko Madrilgo gobernuak bi argudio eman ditu: laguntzaren helburua konponketa lanak direla, ez lan berriak egitea eta lana ez dela udalaren

eskumenekoa, zati bat eremu publiko hidraulikoan baitago. Baztango udalak, horren aurrean alegazioak aurkeztuko ditu diotenez «egiaz den bezala, bide konponketa dela arrazoituko dugu eta ez lan berria. Bertzetik, Nafarroan maiz, nahiz eremu publiko hidraulikoan egon udalek halako lanak egiten dituztela. Eta hori egiaztatzeko, Baztango udalak Nafarroako Gobernuak ingurugiro departamentuari txostena eskatu dio».

2015eko otsailan izandako erauntsiek Sumutsutik Bidarraitako bide zatian lurmendia egin zuten. Bidea denbora batez hetsirik gelditu zen, behin-behineko pasabidea egin artio. Bidea behin betiko konpontzeko Baztango udalak Espainiako Gobernuak ateratako dirulaguntza deialdi berezirat proiektua aurkeztu zuen. Baztango Udalak, ondoko asteetan, epeen barnean aipatu helegitea aurkeztuko du.

BESTSAK → BIGARREN ASTEBURUAN

Elbeteko bestak irailaren 9tik 14ra ospatuko dituzte

Zikiro jatea
eginen dute
larunbatean

TTIPI-TTAPA

Iraileko bigarren asteburuan iritsiko da Elbetera besta giroa. Ortziralean hasi eta astelehenera arte segidan, hamaika ekitaldi antolatutako dituzte. Asteartearen ostean hartu ondoren, asteazkenean dianak, meza eta luntxa izanen dituzte.

ORTZIRALEA, IRAILAK 9

- 18:30 Txupinazoa eta bonba japoniarrak.
- 21:00 Baztan zopak.
- 22:30 Hauspolariek taldearen emanaldia Elbeteko posadan.
- 00:00 Txopo goratzea. Ondotik Hauspolariek plazan eta DJ Aimar Elbeteko gazteen ostatuan.
- 06:00 Xinger jatea.

LARUNBATA, IRAILAK 10

- 09:00 Dianak.
- 14:30 Zikiro jatea. On-



ARGAZKIAK: IRATI JAEN

Mahaiaren bueltan jatekoa eta giro ona izanen da bertze urte batez nagusi.

- dotik dantzaldia frontoian Franxixkorekin.
- 20:00 Muxikoak.
- 23:00 Mendiberri plazan. Ondotik Tirri&Terry Jai alai guateque.

IGANDEA, IRAILAK 11

- 09:00 Dianak.
- 11:00 Puzgarriak, Tren txu txua eta kars-ak..
- 13:30 Haurren bazkaria Elbeteko posadan.
- 15:30 Puzgarriak, Tren txu txua eta kars-ak.
- 18:00 Baztango dan-

- tzariak eta txokolatada.
- 18:00 Mus eta Partxis txapelketa Elbeteko posadan.
- 20:00 Dantzaldia Hauspolariek taldearen eskutik.

ASTELEHENA, IRAILAK 12

- 09:00 Dianak.
- 14:30 Herri bazkaria.

ASTEAZKENA, IRAILAK 14

- 09:00 Dianak.
- 11:00 Meza nagusia eta ondoren luntxa.

OHARRAK

Zikiro jaterako txartelak Elbeteko Posadan eta Karrikan egonen dira salgai.

Haurren bazkarira joan nahi duenak Posadan eman behar du izena eta baita mus txapelketan parte hartu nahi duten bikoteek ere.

LAN ESKAINTZA

Udaleko berdintasun teknikariaren ordezkapena egiteko deialdia egin dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Berdintasun teknikariaren ordezkapena egiteko lan eskaintza argitaratu du. Oposizio-lehiaketa bidez eginen da aukeraketa eta aldi baterako izaera izanen du lanpostuak, bajaran dagoen pertsona lanera itzuli edota lanpostua bera amortizatu arte. Ezinbertzekoa izanen da euskaraz jakitea.

Lehiaketa-oposizioa edo egindako lehenengo proba gainditzen duten hautagaiekin lan postua sortuko da etorkizunean ordezkapenak bideratu ahal izateko.

Eskabideak erregistroan aurkeztu behar dira irailaren 2a baino lehen (astelehenean ostiralera 09:00-14:00) eta Baztango Udalar faxez edo posta elektronikoz jakinarazi beharko diote eskabidea aurkeztu dutela.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua



Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA



T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

ELBETEKo POSADA

ONGI PASA BESTAK!

6 logela bainugelarekin eta egongela bat

- Eguneko menua
- Aste hondarretan karta
- Enpresa oforduak
- Familia bilkurak
- Bataioak ...

Karrikaundi z/g
ELBETE
T. 948 581 519
info@posadaelbete.com



www.posadaelbete.com

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO


ttipi-ttapa

(0034) 948 635 458
erran.eus

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 2TIK 5ERA

Zikiro jateak borobilduko ditu aurten ere Arraiozko bestak



ARGAZKIAK: OIHANA RETEGI

Larunbat
arratsaldean
mus, tortilla eta
postre
txapelketak
jokatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Arraiozko bestak irailaren 2tik 5era ospatuko dituzte, egutarau zabalarekin.

ORTZIRALEA, IRAILAK 2

- 12:00 Altxaferoa, segidan txistulariak.
- 14:00 Haurren bazkaria.
- 16:00 Haurrendako:

Zumba, puzgarriak, joko-txokoak, apar-festa eta ondotik txokolatada.

- 20:30 Mutil dantzak.
- 21:30 Baztan zopak Polekeleke txarangak alaiturik.
- 00:30 Polekeleke txarangarekin animazioa. Dantzaldia Xarma taldearekin. Akitzeko DJa

LARUNBATA, IRAILAK 3

- 10:00 Argi soinuak.
- 11:00 Karta jokoak eta hamaiketako Mardean.
- 11:30 Haurrendako arrain harpatzea Mardeakolabaderoan.
- 17:00 Mus txapelke-

Ortziraletik astelehenera arte, haur, gazte zein helduak besta giroan ibiliko dira.

ta Arizti Elkartean.

- 18:30 Tortilla eta postre txapelketa, segidan dastaketa.
- 19:00 Herriko dantzari eta kantari ttikien emanaldia.
- 20:00 dantzaldia Oharkaberekin.
- 00:00 etarik aitzinera Gaupasa Oharkaberekin. DJ Tirry&Teri.



IGANDEA, IRAILAK 4

- 10:00 Argi Soinuak.
- 19:00 Erreka dantza taldearen emanaldia.
- 20:00 Txamukos mariatxiak (Bokata eta tragoxka hartzeko aukera izanen da).

ASTELEHENA, IRAILAK 5

- 12:00 haurrendako kamiseta margotzea (Bakotxak bere kamiseta eraman behar du).
- 12:00 Haurrendako herri-lasterketa.

- 14:30 Zikiro-jatea trikitilarietako eta Hauspolariek alaiturik.
- 17:00 Aulki dantza.
- 20:00 Dantzaldia Hauspolariek.
- 00:00 Gaixoa gu.

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



***10.000€-ko sukaldea barne**

Ezaugarriak:

- 101 m²ko etxabea lursailarekin
- 1° solairua, 69 m² eta 75 m²ko etxebizitzak
- 144 m²ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

***126.000€**

S
AROB
ERAKUNTZAK

info@sarobe.eus

www.sarobe.eus

629 687 171

mmstudio-k diseinatu
www.mmstudio.info • 651 776 998

TXIRRINDULARITZA → IRAILAREN 2 ETA 3AN

Espainiako Itzuliko etapa bukaera eta irteera hartuko ditu Urdazubik

Etapa luzeenaren helmuga eta etapa nagusiaren abiapuntu

TTIPI-TTAPA

Espainiako Itzuliko Urdazubi eta inguruko herriak hartuko ditu bete-betean irailaren 2 eta 3an, itzuliko 13. etaparen helmuga eta 14. etaparen irteera bertan izanen baitira. Itzuliko hirugarren asteburuan iritsiko da itzulia eskualdera, lasterketaren puntu gorenean, eta etapa luzeenaren helmuga eta etapa nagusiaren abiapuntu izateak interesa areagotzen du.

Irailaren 2an, ortzilara, Bilbon hasiko da

ORDUTEGIA

Irailaren 2an, ortzilara, 17:30 aldera iritsiko dira Dantxarinea helmugara.

Irailaren 3an, larunbata, 12:04an izango da irteera ordua.

etapa eta 211,4 kilometroko bidea egin beharko dute txirrindulariek. Tartean, bigarren mailako mendate bat eta hirugarren mailako sei igaro beharko dituzte. Bilbotik 12:23an abiatuko dira eta Bizkaia eta Gipuzkoatik barna ibili ondotik, Aritxulegitik pasa eta 15:30 aldean Aginan barna sartuko dira eskualdera. Lesaka, Etxalar, Lizaieta (16:25), Berruet Benta,



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Burdinaren Egunak jendetza erakarri du bederatzigarren urtez

Urdazubiko Burdinaren Eguna giro ederrean ospatu zen agorrilaren 6an. Bederatzigarren edizio honek gaiarekin lotutako jarduera egitarau zabala izan zuen. Berteak bertze, burdin minerala idi-gurdietan garraiatzen zeneko ibilbidea antzeztu zen. Axular baserritik Urdazubira idiek tiratutako gurdi batean zetorren burdin mineralaren segizioa plazara ailegatu eta han itxi zuten tratua Bizkaiako benakeroek eta Salbatore monastegiko abadeak, duela mende batzuk egiten zuten moduan. Aurtengoan, 14 urrezko txanpon ordaindu behar izan zituzten, iaz baino bat gehiago. Aurten, lehen aldiz, Pobeñako Rafael Ansorena idazkariak trukea idatziz jaso zuen. Handik buruzareetan eraman zuten burdina monjeek. Plazako antzezpeneren ondotik, Baztango Mutildantzariak taldeak dantza saioa egin zuen eta Maria del Mar Larraza historialariak foruei eta 1893ko gamazadari buruzko solasaldi interesgarria eskaini zuen. Ondotik, zikiro jatea eskaini zen 400 bat lagunendako eta Bankako Menditarrak taldeak kantatu zuen bazkalondoan.

Zugarramurdi, Dantxarinea, Ainhua, Oihalde, Sara (17:20), Berruet Benta, Zugarramurdi eta Urdazubin sartuta, 17:30 aldera egingen dute helmuga Dantxarinea.

Irailaren 3an, larunbata, 2016ko Espainia-

ko Itzuliko etapa nagusia eta erabakiorra jokatuko da. Urdazubitik Aubisque-Gourette arteko bidea egin beharko dute txirrindulariek, 196,1 kilometro, mendiko lau mendate, lehenbiziko mailako hiru eta kategoria bereziko

bat igaro beharko dituzte.

Urdazubiko udalletean 10:53tik 11:38ra egingen dituzte sinadura eta kontzentrazioa eta 12:04an abiatuko dira txirrindulariak Ezpeleta eta Donibane Garazi aldera.

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDAZUBI

anterola
Isakniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

BURKAITZEA
JATETXEA - ERRETEGIA

Eguneko menua, Plater konbinatuak, Karta, Bazkariak, Sandwichak...
Taldeentzako bazkariak
Berezitasunak:
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta
Alkerdi auzoa, Zugarramurdiko errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296
restaurantburkaitzea@gmail.com

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era
Dantxarinea 2 km. tara
PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN
ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

ZUGARRAMURDI

KULTURA → DONOSTIA 2016 KULTUR HIRIBURUTZAKO EGITASMOA

'Bidea 2016' ekimena herrira iritsiko da irailaren 17an

Euskal Herria mendiz mendi kurrizten duen ibilaldia da

Margari eta Koro

Donostia 2016 kultur hiriburutzaren baitan antolatzen ari diren ekitaldien artean *Bidea 2016* izeneko da ari dira egiten, mendiz-mendi Euskal Herria kurrizten duena. Denera 36 etapa antolatu dituzte eta irailean Xareta ingurura iritsiko da. Martxoetik eta urria bitartean, igandero ari dira ateraldiak egiten. 26. etapa da irailaren 17an Sara eta Zugarramurdi lotuko dituen. Eta irailaren 25ean beriz, 27. etapa, Urdazubi eta Kanpo arteko bidea eginen dute. Parte hartzeko, donostia 2016ren web-ean izena eman behar da eta 7 euro ordaindu.



UTZITAKO ARGAZKIAL

36 etapatan banatuta, martxoetik urria bitartean Euskal Herria ezagutzeko aukera.

EKINTZA KULTURALAK ERE BAI

Hiria eta mendia tartekatuz, natur eta arte balio esanguratsua duten tokietatik igarotzen ari dira. Bidea egiteko antolatu diren irteeretan, naturaz eta kulturaz aldi berean gozatu ahal izatea da helburua.

Horretarako, ibilbidean jarduera kulturalak antolatzen ari dira; bai hasieran, erdibidean edota amaieran. Zugarramurdiin, Sorgin Haizeak taldekoen eskutik Sorgin agurra, Inkisidorearen agerpena eta akelarrea ikusteko aukera izanen dute bisita-

riek, arratsaldean hasi eta iluntzera arte.

AUTOBUS ZERBITZUA

Sara eta Zugarramurdi arteko bidea egiteko autobus zerbitzu berezia ere antolatu du Atxuria mendi taldeak. Zugarramurdiako Azketa jatetxearen aurrean

KULTURA

'Las brujas de Zugarramurdi'ko pasarteak antzetzeko aukera lezeetan

Margari eta Koro

Uztailean eta abuztuan aktoreen papelean sartzeko aukera polit bat eskaini dute lezeetan. Alex de La Iglesiaren *Las brujas de Zugarramurdi* filmeko eszena batzuk grabatzeko aukera izan da eta ondotik, grabaketa hori parte hartzaileei oparitu diete. Norbaitek parte hartu nahiko balu, bertze bi saio ere egiteko asmoa dute. Irailaren 3an, larunbata izanen da lehenbizikoa eta urriaren 2an bigarrena. Interesa duenak 948 599094 telefonora deituta izena eman beharko du. Dohainik da.

egine du lehenbiziko geldialdia 16:45ean eta 17:00etan iritsiko da Sarako igerilekuetara. Itzulerako autobusa beriz, 22:30ean izanen da Zugarramurdiako Azketa jatetxearen aurrean eta 22:45ean Sarako igerilekuan.



ARGAZKIA: KORO IRAZOKI

Berrikuntzez betetako bestak izan dira aurtengoak

Balantze baikorra dugu aurtengo bestetakoa. Berrikuntzak ongi funtzionatu dute: ahate-jokoa Maxintxeneko belategira pasatu zen, eta hoberako izan da; mexikar talde bat izan genuen arratsalde batez, eta plaza bete zuten. Nola maite ditugun kantu mexikarrak euskaldunok! Haurren pilota txapelketa ere berreskuratu da eta afizioa badagoela ikusi da (argazkian finalistak). Bertzalde, herriko bi musika taldek, *Zer nahi* eta *Toomatxa* taldeek, kontzertu bat eskaini zuten, sekulako giroa muntatuz. Eguraldi aldetik denetatik izan dugu beroa, denbora goxoa eta euria, baina ekitaldi guztiak normaltasunez egin ahal izan dira.



ARGAZKIA: KORO IRAZOKI

Biarritz Olimpique taldekoen bisita

Uda honetan bisitari aunitz izan ditugu herrian eta tartean maila goreneko kirolariak ere bai. Uztaileko azken egunetan sorpresa polita izan genuen, Biarritz Olimpique errugbi taldeko kideak izan baitzenituen Graxiana aterpetxean prestaketa kontzentrazio bat egiten. Beraien artean Donostiako Asier Usarraga errugbilari famatua omen zegoen.

KULTURA → BURUILAREN 10ETIK 14RA

Bortz eguneko besta lehertuko da buruilaren 10ean

Gauero karririk animatuko dituzte musikariek

Joana GERENDIAIN

Usaian bezala, bortz eguneko bestak antolatu ditu Sarako Besten Komiteak. Karriketan animazioa, ikusgarriak, dantzaldiak, musika... guztion gozarri izanen dira.

LARUNBATA, BURUILAK 10

- 09:00 Ball-Trap Plaxi-bordan.
- 09:00 Basurde Zaharren txapelketa Errugbi Zelaian.
- 17:00 Sarakorrika.
- 21:30 Polekeleke txarangaren animazioa.
- 23:00 Muyayo Rif taldearen kontzertua.
- 00:00 Mikel H Dj. Gau guzian karririk animatuko dituzte Iparraldeko gaiteroek eta Incansables txarangak.

IGANDEA, BURUILAK 11

- 10:00 Meza nagusia Urruñarrak klikarekin. Itzuliz itzuli Mariñelak tanborradarekin eta gaiteroekin.
- 10:30 Luzean erreboteko partidak. Donibane Lohizune Angeluren aurka.
- 16:00 Kornelio akordeoi eskolaren emanaldia.
- 16:30 Desfilea plazan: gaiteroak, joaldunak eta ahate jokoak.
- Ondotik, Herri Kirolak.
- 19:00 Aperitifa Sarako kantariak alaituta.



- 22:00 Xiberotarrak taldearen kantaldia.
- 23:00 Su zerria.
- 23:45 Dantzaldia Holako taldearekin. Los Incognitos taldeak karririk animatuko dituzte.

ASTELEHENA, BURUILAK 12

- Karriken alaitzea Gaitero eta Txistulariekin.
- 10:30 Gipuzkoako selekzioa Iparraldeko selekzioaren aurka Luzean errebotean.
- 13:30 Zikiro jatea Olhain ikastorak antolatua kiroldegian. (Aurrez erreserbatu eta gainerako txartelak buruilaren 12an 10:30ean Herriko Etxeko ostatuan salduko dira.
- 16:30 Gorritirekin jokoak errebotean.
- 17:00 Esku polita txapelketako finalerdietako lehenbiziko partidak.
- 18:00 Esku polita txapelketako finalerdietako bigarren partidak.
- 18:30 Euskal dantzak Zazpiak bat taldeko

- trikitilariekin.
- 20:00 Aperitifa musikariek eta Saranga taldearekin.
- 22:00 Kantaldia Aire Ahizpekin.
- 23:00 Dantzaldia Joselu anaiak taldearekin. Gau guztian karririk animatuko ditu Saranga txarangarak.

ASTEARTEA, BURUILAK 13

- Karriken alaitzea Gaitero eta Txistulariekin.
- 09:00 Pasakako lagunak Tour trinketean.

- 10:30 Luzean errebotean Spuc Noizbaten aurka.
- 17:30 Joko Garbia errebotean Lehen partida Sarako Izarra pilota eskolako gazteekin.
- 18:15 Helduen partida: Frantziako Txapelketako errebantxa.
- 18:15 Helduen partida. Hardoy Saint Palaisen aurka.
- 19:00 Mutxikoak Kuxuktu txarangarekin.
- 20:00 R Gaua gaztetxean.

- 20:30 Aperitifa Trikitilariekin.
- 22:00 Dantzaldia Koloka taldearekin. Gau guztian karririk animatuko ditu Kuxukutu Txarangak.

ASTEAZKENA, BURUILAK 14

- Karriken alaitzea gaitero eta txistulariekin.
- 09:00 Sarako Azien da prima Trinketeko zabaldegian.
- 10:30 Gizonen Xoko Txapelketaren errebantxa Trinketean.
- 11:30 Emakumeen Xoko Txapelketaren errebantxa Trinketean.
- 13:00 Puzgarriak.
- 17:00 Euskal Herriko Bestetako Esku Pilota Txapelketako finala. Trinketean eta plazan bertsulariak: Amets Arzallus, Odei Barroso eta Xumai Murua. Gai emaille: Karlos Aizpuru. Zozketa.
- 19:30 Aperitifa Zort'zi-bururekin.
- 22:00 Elektro txaranga.
- 23:00 Suziriak.
- 23:30 Dantzaldia Herri timo taldearekin.

SARA
HERRIKO ETXEA

*Plazan elkar
ikusiko dugulakoan
Herriko Kontseiluak
besta onak opatzen dauzkitzue*

SARARI BALHOREAREN
ETA LEYALTASUNAREN
SARIA EMANA
LUIX XIV- EK 1693-AN

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

LEHIAKETA → ERRAN.EUS WEBGUNEAN

Eskualdean ateratako udako argazki ederrenaren bila

Irailaren 11n bukatzen da ERRAN.EUSen argazkiak aurkezteko epea

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko paisaiak, bestak, herritarrak, animaliak... ez ote dira urrutikoak bezain ederrak? Guk baietz uste dugu eta horregatik, eskualdean ateratako udako argazki ederrenaren bila lehiaketa antolatu dugu ERRAN.EUS webgunean.

Lehiaketan parte hartzeko ERRAN.EUS atarian sartu behar da eta bertan lehiaketaren berri emanez ageri den laukitxoan klik eginez lehiaketako atalean sartuko zarete. Bertan, argazkiak bidaltzeko aukera eta aurkeztu direnak ikustekoa izanen duzue.

BI IRABAZLE: BAT ERABILTZAILEEK HAUTATUA, BERTZEA EPAIMAHAI BATEK

Lehiaketan bi irabazle egonen dira. Sari nagusia, epaimahaiak aukeratuko du eta bigarrena webguneko



Lehiaketan aurkeztu dituzten argazkietako batzuk. ERRAN.EUSen daude ikusgai guztiak.

erabiltzaileek erabakiko dute, irailaren 11tik 25era webgunean bertan botoa emanda.

Lehen saria irabazten duenak Itzaltzu-Iratiko Oihanean dagoen Be-

saro Landahotelean 2 lagunentzako asteburuko egonaldia irabaziko du eta bigarren saria Etxalarko bentan 2 lagunentzako otordua izanen da. Horretaz ga-

in, parte hartzen dutenen artean, Baztango Zaporeak produktuekin osatutako saskia zozketatuko da. Animatu eta bidali argazkiak edo eman botoa!



**ALFONSO
SALDIAS AGESTA**

DONEZTEBEN,
2014 Irailaren 10ean

II URTEMUGA

Seguru urte aunitz pasatuko direla eta hau bigarrena bertzerik ez dela izanen, Baina urteak kontatu ahal izateak berak, zurekin ahazten ez garela adierazten du.



Mª Carmen MINDEGIA MINDEGIA

Ezkurran, 1988ko abuztuaren 2an, 37 urterekin.

Xabier IPARRAGIRRE MINDEGIA

Ezkurran, 2016ko uztailaren 30ean, 39 urterekin.

Goiz joan zara ama bezalaxe, gure bihotza penaz bete, gelditzen zaigun itxaropena egun batean berriro elkartzea.

ZURE FAMILIA



**Xabier
IPARRAGIRRE MINDEGIA**

Ezkurran, 2016ko uztailaren 30ean,
39 urterekin.

Ttikitatik ikusi izan duzu bizian dauden trabak horregatik eduki dituzu momentu on eta txarrak, hala ere beti gogoan izanen dugu zure guttun, poesi ta irrifarrak.

ZURE LAGUNAK

EZKONTZAK

Francisco Javier Apezetxea Loiarte eta **Karen Lissette Romero Campos**, Goizueta eta Nikaraguakoa, uztailaren 12an.

Ngone Sow eta **Alazne Altxu Arozena**, Senegal eta Iturengoak, uztailaren 5ean.

Tomas Garcia Garcia eta **Matilde Ibarrola Manterola**, Iruñekoak, uztailaren 16an, Iturenen.

Jose Ariztegi Irigoien eta **Joakina San Sebastian Izeta**, Etxalar eta Urnietakoa, uztailaren 16an.

Javier Paskual Alzaga Zaporta eta **Miren Olaetxea Indaburu**, Irun eta Etxalarkoa, uztailaren 30ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Xuban Baraibar Inda, Arraizkoa, uztailaren 24an.

Enai Mujika Loiarte, Goizuetakoa, uztailaren 22an.

Maialen Almandoz Retegi, Igantzikoa, abuztuaren 3an.

Araitx Mitxelena Loinaz, Igantzikoa, abuztuaren 11n.

Laia Mariezkurrena Arrieta, Sunbillakoa, abuztuaren 9an.

Martxel Ibarra Lanz, Sunbillakoa, abuztuaren 13an.

Jokin Etxeberria Garzia, Lesakakoa, uztailaren 17an.

Luar Almandoz Etxarte, Lesakakoa, uztailaren 24an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Mari Carmen Danboriena Sanzberro, Elizondokoa, uztailaren 21ean, 92 urte.

Dámaso Mendiburu Beola, Zugarramurdikoa, uztailaren 21ean, 68 urte.

Mari Carmen Pellejero Belio, Lesakakoa, uztailaren 23an, 75 urte.

Patxiku Aranburu Mikelarena, Etxalarkoa, uztailaren 24an, 81 urte.

Juan Ramon Zubiria Leiza, Lesakakoa, uztailaren 26an, 47 urte.

Paquita Juanenea Lasarte, Saldiaskoa, uztailaren 26an, 74 urte.

Ramon Apezetxea Zubiri, Goizuetakoa, uztailaren 28an, 85 urte.

Esther Gonez Irazoki, Elizondokoa, uztailaren 28an, 87 urte.

Xabier Iparragirre Mindegia, Ezkurakoa, uztailaren 30ean, 39 urte.

Jesus Maria Irigoien Irigoien, Erratzukoa, uztailaren 31n, 63 urte.

Felipa Telletxea Arozamena, Narbarrekakoa, abuztuaren 3an, 88 urte.

Sor Apolonia (Aurora) Mozo Bakalkoa, Elizondon, abuztuaren 3an, 95 urte.

Maria Josefa Sagarzazu Elizegi, Elizondokoa, abuztuaren 4an, 99 urte.

Eladia Bueno Trullenque, Elizondokoa, abuztuaren 4an, 92 urte.

Miguel Mendiburu Arizaleta, Orabidekoa, abuztuaren 5ean, 59 urte.

Gabriel Lazkano Sestorain, Leitzaakoa, abuztuaren 8an.

Ignacio Perugarria Arretxea, Beraakoa, abuztuaren 9an, 79 urte.

Agapito Morante Urdiales, Elizondokoa, abuztuaren 9an, 84 urte.

Francisco Graziarena Mitxelena, Sunbillakoa, abuztuaren 10ean, 95 urte.

Martin Elizondo Mitxelena, Sunbillakoa, abuztuaren 16an, 74 urte.

Sor Emilia (Placida) Azanza Ataun, Elizondokoa, abuztuaren 16an, 88 urte.

Maria Pilar Celaya Iriarte, Lesakakoa, abuztuaren 17an, 66 urte.

Asuncion Lurnagaray Vertiz, Elizondokoa, abuztuaren 17an, 94 urte.

Joxe Mari Hernandorena Mariezkurrena, Leitzaakoa, abuztuaren 19an.

Mikaela Dendarieta Larraya, Lesakakoa, abuztuaren 19an, 79 urte.

Pedro Elizalde Elizalde, Zubietakoa, abuztuaren 19an, 78 urte.

Maria Josefa Agirre Irazoki, Berakoa, abuztuaren 19an, 92 urte.

Mari Carmen Ruiz Santamaria, Doneztebekoa, abuztuaren 21ean, 79 urte.

Angel Ariztia Arburua, Urdazubikoa, abuztuaren 22an, 59 urte.

Santiago Leiza Ordoki, Elizondokoa, abuztuaren 22an, 86 urte.



Patxiku ARANBURU

Etxalarren hil zen, 2016ko uztailaren 24ean, 81 urte zituela.

*Argi bat itzali da hemen lurtean
berri bat biztu da han zeru ederrean
gure oroimenean izanen zara betiko
ez agurrik, ez adiorik,
gero arte baizik.*

ETXEKO FAMILIA



Miguel AROZENA IRIBARREN

Donezteben, uztailaren 5ean, 83 urterekin
83 Udaberritan eman digun umorea,
83 udaberrietan loratu den landarea,
joan egin da gure ataitxi, alai eta dotorea.
*Beti indartsu zailtasunen artean,
ez du etsi bere bidean,
irrifarre batekin denen aurrean.
Bihotzean leku bat dugu beti zuretzat gordea.
Gurekin geldituko dira betirako
elkarrekin pasatu ditugun lagunarte atseginak.*

ETXEKOAK



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Txapeldun eta txapeldunordeak, agintari eta laguntzaileekin batera.

LAXOA → BAZTAN-ERREKAKO XXXVII. TXAPELKETA

Hamaikagarrena ere irabazi du Iruritik laxoa txapelketan

9-4 irabazi zion
abuztuaren 6ko
finalean
Donezteberi

TTIPI-TTAPA | ARRAIOZ

Baztan-Errekako 37. Laxoa txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 6an Arraiozen eta iaz bezala, Irurita Migelene suertatu zen txapeldun, Doneztebe The Moment taldeari 9-4 irabazita. Azken hiru urtetan final berdina errepikatu da eta lehenbizikoa doneztebarrek irabazi baldin bazuten ere, azken biak baztandarrentzat izan dira.

Irurita Miguelena taldean, Xabi Barberena sakalaria, Gorka Urtasun numeroa eta Jagoba Ramos eta Egoitz Prim laurdenak aritu ziren. Azpitxapeldun izan zen Doneztebe The Moment taldearekin Pascual Bertiz sakalaria, Koldo Legarra numeroa eta Jokin Arraztoa eta Javier Bertiz laurdenak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Iruritako sakalaria, Xabi Barberena izendatu zuten finaleko jokalaria onena.

Lehenbiziko hiru jokoak iruritarrek egin zituzten arren, hiruna berdintzea lortu zuten doneztebarrek. Berriz ere hiru joko segidan egin eta 6-3 aitzineratu ziren Iruritakoak. 6-4koa egin zuten Doneztebek, baina hortxe gelditu ziren, Iruritik azken hiruak segidan egin eta eraman baitzuen txapela.

Xabier Barberena sakalaria jaso zuen finaleko jokalaria onenari Mi-

kel Eizagirre zaleak ematen dion saria. Xotero Etxandi Arraiozko alkateak eta Mikel Ortega Baztango jarduneko alkateak jarri zizkieten txapelak irabazleei; bigarren postuko sariak Nafarroako Pilota Federazioko eta Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuko ordezkariak eman zizkieten doneztebarrei, Pilotarien Batzarrako presidentek hirugarren sailkatuei

eta Manuel Hernandez Autak laugarreni.

ARRAIOZ HIRUGARREN

Hirugarren posturako norgehiagokan, bertzalde, Arraioz Sagarria taldeak (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Aritz Alunda eta Xabier Maritoren) irabazi zion Irurita Biek taldeari (Joseba Urtasun, Guillermo Etxenike, Iñaki Etxandi eta Miguel Bidegain).

GAZTE TXAPELKETA

Gaztetxo eta gazteak azken txanpan sartuak

TTIPI-TTAPA

Helduei txanda hartuz, gazte eta gaztetxoak ere ari dira udan beraien txapelketak jokatzeko. Gazte mailan bortsu talde ari dira eta gaztetxo mailan zazpi. Ligaxkako sailkapenaren arabera, gazte mailan bi lehenbizikoei jokatuko dute finala irailaren 17an Arraiozko plazan. Gaztetxo mailan, berriz, finalerdiak irailaren 3an eta 10ean jokatu dituzte eta finala, hauek ere hila-ren 17an Arraiozen.

TXAPELDUNAK

1980	IRURITA
1981	DONEZTEBE
1982	DONEZTEBE
1983	OIZ
1984	OIZ
1985	DONEZTEBE
1986	DONEZTEBE
1987	DONEZTEBE
1988	OIZ
1989	DONEZTEBE
1990	OIZ
1991	IRURITA
1992	DONEZTEBE
1993	IRURITA
1994	DONEZTEBE
1995	DONEZTEBE
1996	DONEZTEBE
1997	DONEZTEBE
1998	DONEZTEBE
1999	ARRAIOZ
2000	DONEZTEBE
2001	ARRAIOZ
2002	IRURITA
2003	DONEZTEBE
2004	IRURITA
2005	DONEZTEBE
2006	DONEZTEBE
2007	IRURITA
2008	DONEZTEBE
2009	ARRAIOZ
2010	IRURITA
2011	IRURITA
2012	IRURITA
2013	DONEZTEBE
2014	DONEZTEBE
2015	IRURITA
2016	IRURITA

AIZKORA → ABUZTUAREN 13AN SUNBILLAN

Arria V.a eta Otaegi nagusi XV. Ramon Latasa Sarian

Donato Larretxea da sari hau gehien irabazi duena

TTIPI-TTAPA

Ramon Latasa zena-ren omenez, hamabosgarren aldiz, aizkora txapelketa egin zuten abuztuaren 13an Sunbillan. Beti bezala, aizkolaririk onentsuenak gonbidatu zituzten eta bortz bikotetan banatuta, saio ederra eskaini zuten. Jendeak ere ez zuen hutsik egin, eta beroaren beldurrik izan gabe,

jendetza bildu zen frontoian.

Hamar kanaerdiko eta 60 ontzako bertze sei ebaki behar izan zituzten aizkolariek eta lanak akitzen azkarrenak Xabier Orbegozo **Arria V.a** (Errezil, Gipuzkoa) eta Joseba Otaegi (Zizurkil, Gipuzkoa) izan ziren. 22 minutu eta 15 segundoz akitu zituzten lanak. Bortz segundoko aldea aterazieten bigarren gelditu ziren Aitzol Atutxa (Dima, Bizkaia) eta Ugaitz Mugerzari (Mutriku, Gipuzkoa). Hirugarren bikotea **Donato Larretxea**



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Latasa Sariko partehartzaileak goitian eta irabazleak behegian

(Arantza) eta Iker Vicente (Otsagabia, Nafarroa) izan zen, laugarren **Jon Rekondo** eta **Ruben Saralegi** leitzarrak gelditu ziren eta bosgarren Iñaki Azurmendi (Arriaran, Gipuzkoa) eta Jon Irazu (Zizurkil, Gipuzkoa).

LARRETXEAK ZAZPI GARAIPEN

Palmaresa kontuan hartuz, Donato Larretxeak zazpi aldiz irabazia du Ramon Latasa Sari, Floren Nazabalek sei aldiz eta Miel Mindegia bortz alditan.



SAILKAPENA

1	Joseba Otaegi-Arria V.a	22:15
2	Aitzol Atutxa-Ugaitz Mugertza	22:20
3	Donato Larretxea -Iker Vicente	24:52
4	Jon Rekondo - Ruben Saralegi	25:51
5	Iñaki Azurmendi-Jon Irazu	28:26

Marka berria ezarri du Xanta Souza lesakarrak Sunbillan



TTIPI-TTAPA

Gelditu gabe, lanean segitzen du Xanta Souzak eta berri ere bertze marka bat egin du. Sunbillan, XV. Ramon Latasa Sariaren barne, 50 kiloko

txingak esku banatan hartuta, sei plaza egin zituen, 17 metro eta 50 zentimetro. Gisa honetara, lehendik berak ezarritako marka hobetu du lesakarrak.

Tona erdia bizkarreratu du Inaxio Perurena leitzarrak



TTIPI-TTAPA

Inaxio Perurenak ere marka berria ezarri zuen Sunbillan, Ramon Latasa Memorialean. 280 eta 220 kiloko harriekin aritu zen, guztira tona erdia ja-

sotzeko. 280 kiloko bi eskuekin altxatu zuen eta 220koa esku bakarrarekin. Orain arte inork ez zuen halakorik egin, hiru eskurekin 500 kilo altxatzea.

KOXKORRAK → ABUZTUAREN 16AN ARANTZAN

Anizko Unai lantzik irabazi du Nafarroako koxkor biltze txapelketa

17 txapel irabaziak dituen Fernando Etxegaraiaren aitzinetik gelditu da 21 urteko gaztea

TTIPI-TTAPA

Arantzako besten barne, abuztuaren 16an jokatu zen Nafarroako Koxkor Biltze txapelketa. Zazpi kirolari aritu ziren lehian, eta horietatik bostz eskualdekoak. 1,25 metroko tartearrekin, bi lerrotan paratutako 50 koxkorrik biltzen bizkorrena Unai lantzi 21 urteko Anizko gaztea izan zen. 6 minutu eta 15 segundo be-

har izan zituen lanak bukatzeko. 17 txapel irabaziak dituen Fernando Etxegarai beratarri zortzi segundoko alde aterazion. Hala, bera izanen da irailaren 3an Donostian jokatu den Zazpi Herrialdeen Txapelketan koxkorrik biltzen Nafarroa ordezkatu duena.

Eskualdeko gainerako kirolariei dagokienez, Iñigo eta Andoni Lasaga etxalartarrak laugarren eta seigarren gelditu ziren, hurrenez hurren, eta Mikel lantzi elizondarra zazpigarren.

«SORPRESA IZAN DA»

Unai berak txapela soinean, kontent zegoela onartu zuen, baina «sorpresa» izan zela ere aitortu zuen txapelketaren ondotik: «Fernando-



ARGAZKIA: XAGU, LESAKA

Ezkerretik hasita, Fernando Etxegarai, Unai lantzi eta Imanol Kañamares.

ri irabaztea ustekabeko handia izan da». Gaztea bada ere, badu koxkor biltzen esperientzia. 10-11 urterekin Basaburuko taldearekin hasi zen herri kiroletan eta Nafarroako txapelketan bosgarren finala izan du aurtengoa.

SAILKAPENA

	SAILKAPENA	
1	Unai lantzi (Aniz)	06:15
2	Fernando Etxegarai (Bera)	06:23
3	Imanol Kañamares (Arostegi)	06:28
4	Iñigo Lasaga (Etxalar)	06:50
5	Iñaki Ekisoain (Berriozar)	06:52
6	Andoni Lasaga (Etxalar)	06:58
7	Mikel lantzi (Elizondo)	07:09

LASTERKETAK → ABUZTUAREN 21EAN SARAN

Joseba Larralde bigarrenenez irabazi du Sarako kontrabandisten lasterketa

Fernando Etxegarai hirugarren izan da

TTIPI-TTAPA

Bero handiari aurre eginez, Joseba Larral-

de beratarri izan da aurreten ere Sarako kontrabandisten lasterketa egiten bizkorrena. Joan den abuztuaren 21ean egin zen lasterketa eta 34 korrikalarik hartu zuten parte. 8,4 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten, tartean,



ARGAZKIA: TELLETXEA

Lasterkariak Sarako Kontrabandisten lasterketan.

Zazpi Fagoko gainera bigarren (522 metro). Gainera, ibilbidearen hasierako eta bukaerako metroetan zakua bizkarrean eraman behar izan zuten. Gizonezkoek zortzi kiloko zakua eta emakumezkoek lau ki-

lokoa. Ez da hau probaren berezitasun baskarra, galtza urdinak eta kamiseta txuriarekin ateratzea ere ezinbertzekoa baita.

2014an bezala, Berako gaztea nagusitu zen, 40 minutu eta 34

segundoko denbora eginda. Bigarren Levoy Guillaume gelditu zen (40:51) eta lasterketa hau zortzi aldiz irabazia duen Fernando Etxegarai beratarri (41:12) hirugarren helmugaratu zen.

HERRI KIROLAK → DONOSTIAN IRAILAREN 3AN

Euskal Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketa jokatuko dute larunbatean

Eskualdeko hainbat kirolari ariko dira lanean

TTIPI-TTAPA

Aurten Donostiako Sagues auzoko zabalgunean jokatu da Euskal Herrialdeen Arteko Herri Kirol Txapelketa. Larunbat honetan, irailak 3, egina da hitzordua, arratsaldean, eta euria eginez gero, Atano III.a pilotalekuan izanen da. Nafarroako taldearekin, eskualdeko hainbat kirolari ariko dira.

Sokatiran, 640 kiloko kategorian, Lesakako **Beti Gazte**koak ariko dira; koxkor biltzen Anizko **Unai Iantzi** ariko da; 1,25



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Miguel Angel Sukuntza leitzarraz Nafarroako taldea ordezkatuko du txingekin.

metrotara paratutako 50 koxkorrak bildu behar ditu; lasto altxatzen Amaiurko **Iñigo Goienetxe** ariko da. 45 kiloko lastoa ahalik eta ge-

hien altxatu behar du bi minutuz. Harriarekin **Xabier Ariztegi** etxalartarra ariko da eta 100 kiloko harriari ahalik eta altxaldi gehien eman be-

harko dizkio bi minutuz. Txingekin, **Miguel Angel Sukuntza** leitzarra ariko da. 50 kiloko txingekin ahalik eta plaza gehien egin behar du.

Nafarroako taldea osatuko duten gainerako kirolariak hauek izanen dira: ingude altxatzen Imanol Martin (Berriozar) ariko da eta 18 kiloko ingudeari ahalik eta altxaldi gehien eman behar dizkio; orga jokoan Albaro Zugarrondo (Iruñea) ariko da; 80 kiloko zakuarekin Iñaki Iraizoz (Esain), Oskar Aguas (Berriozar) eta Oier Aizkorbek (Berriozar) 360 metro egin behar dituzte; arpanean Iñaki eta Josetxo Barberenak (Iraizoz) 45 ontzako enberrari 10 ebaketa eman behar dizkio eta aizkoran Iker Vicente (Otsagabia) ariko da, 45 ontzako lau enbor moztu behar du.

AIZKORA → ABUZTUAREN 14AN EZKURRAN

Patxi Mindegia garaile Nafarroako III. mailako txapelketan

Jon Telletxea eta biek mailaz igotzea lortu dute

TTIPI-TTAPA

Ezkurrako besten bane, abuztuaren 14an jokatu zen Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketaren finala. Bost aizkolari aritu ziren la-

nean eta 45 ontzako bi enbor eta beste bi kanaerdiko moztu behar izan zituzten. Guztietan bizkorrena Patxi Mindegia zubietarra izan zen (09:54.48) eta bere ondotik Beintza-Labaiengo Jon Telletxea gelditu zen (10:51.27). Hirugarren postua Uharteren Arakilgo Gorritirentzat izan zen. Laugarren postuan, Beintza-La-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Argazkian, erdian, Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketaren finalean lehenbiziko hiru postuetan gelditu direnak.

baiengo Jesus Etxeberria gelditu zen eta bosgarren postua ere Beintza-Labaienera joan zen, Jacinto Etxekonanearentzat izan baitzen.

Lanak bukatzen lehenbizikoak izateagatik Patxi Mindegiak eta Jon

SAILKAPENA		
1	Patxi Mindegia (Zubietarra)	09:54.48
2	Jon Telletxea (Beintza-Labaien)	10:51.27
3	Iker Gorriti (Uharteren Arakil)	11:38.30
4	Jesus Etxeberria (B. Labaien)	11:55.02
5	Jacinto Etxekonane (B. Labaien)	14:17.87

Telletxeak mailaz igotzea lortu dute. Hala,

Nafarroako II. Mailan ariko dira.

irailak 1 - 15

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Kontzertuak



BAZTAN | 2016.09.02-03

Txuribeltz Festibala blues musika maite dutenentzat

Baztango Blues Elkarteak antolatuta, lehenbiziko aldiz, musika mota honen hainbat kontzertu entzuteko aukera izanen da irailaren 2an eta 3an Lekarozko aterpean.

Erakusketak



SARA | 2016.09.01-05

Eskuen Lana elkartearen lanak ikusgai izanen dira

Irailaren 1etik 5era bitarte Eskuen Lana elkarteak egindako artisauen lanak ikusteko aukera izanen da Lur Berri gelan, 10:00etatik aitzinera. Sarrera dohainik izanen da.

Ikuskizunak



BERA | 2016.09.24

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 'Amalur' ikuskizuna Beran

Amalur ikuskizunaren azken saioa Beran eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek. Irailaren 24an Eztegarra frontoian izanen dira, 18:00etan. Sarrerak irailaren 1etik aitzinera erosten ahalko dira.

Erakusketak

DONEZTEBE

Tren Txikitorren mendeurreneko erakusketa

Irailaren 5era arte.

SARA

Eskuen Lana elkartearen lanak ikusgai

Irailaren 1tik 5era Lur Berri Gelan 10:00etatik aitzinera. Sarrera dohainik.

ERATSUN

Tren Txikitorren mendeurreneko erakusketa

Irailaren 8tik 11ra.

BERA

Tren Txikitorren mendeurreneko erakusketa

Irailaren 13tik 20ra.

Ikastaroak

LESAKA

Haurren garapen atipikoaz ikastaroa

Irailaren 23an eta 24an. Nafarroako Unibertsitateko Publikoak *Garapen atipikoa duten haurren prozesu inklusiboaren hezkuntza eta gizarte sistema eleaniztun batean* ikastaroa eskainiko du Harriondoa Kultur Etxean.

GOIZUETA

Biodantza saioak

Irailaren 16an eta 24an

Udaletxeko Ganbaran. Irailaren 16an 16:30etik 18:00etara eta irailaren 24an 10:30etik 12:00etara.

Ikuskizunak

BERA

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Amalur

Irailaren 24an Eztegarra pilotalekuan, 18:00etan. Sarrerak irailaren 1etik aitzinera salgai, 7 eurotan.

Lehiaketak

ESKUALDEA

Udako argazki lehiaketa

Irailaren 11ra arte aurkez daitezke erran.eus atarian. TTAPI-TTAPAK hartzen duen eremuan sortu edo bizi eta 16 urtetik goitikoentzat da. Argazkiak eskualdean atera-takoak izan behar dute.

ESKUALDEA

Argazki, margo eta marrazketa lehiaketa Arkupeak-eko bazkideentzat

Irailaren 30era arte aurkez

daitezke. Lehiaketako oinarriak arkupeak.com-en.

Kontzertuak

LEKAROZ

Txuribeltz festibala

Irailaren 2an eta 3an Baztango Blues Elkarteak antolatuta, Lekarozko aterpean. Xehetasunak 32. orrialdean.

SARA

Larrun Kanta abesbatza

Irailaren 6an elizan, 21:30ean. Sarrera 10 euro, 14 urtetik beheitikoek doan.

PROPOSAMENA

ARESO

Bederatzigarren aldiz Mendi Martxa

Aresoko plazatik abiatuta, Uli-zar, Urkita, Pagozelai eta Lau Mugarietatik (Guratz) pasatu beharko dute irailaren 4an Aresoko Mendi Martxara joaten diren mendizaleek. 21 kilometro eta 1.250 metroko desnibela duen ibilbidea da aurtengo bederatzigarren aldiz antolatutakoa. Izen-ematea aurretik internetez (12 euro ordainduta) edo egunean berean egin daiteke (15 euro ordainduta). Probaren ondoren, opariak eta paella dastatzeko aukera izanen dira.



Atsulai abesbatzaren kontzertua

Irailaren 9an elizan, 21:30ean. Sarrera 8 euro eta 15 urtetik beheitikoek doan.

Bestak

ARRAIOZ

Herriko bestak

Irailaren 2tik 5era. Xehetasunak 36. orrialdean.

ERATSUN

Herriko bestak

Irailaren 3tik 7ra. Xehetasunak 27. orrialdean.

ARANTZA

Eguzkialdeko bestak

Irailaren 3an auzoko bestak. Xehetasunak 18. orrialdean.

OIZ

Herriko bestak

Irailaren 8tik 11ra. Xehetasunak 26. orrialdean.

ELBETE

Herriko bestak

Irailaren 9tik 14ra. Xehetasunak 35. orrialdean.

SARA

Herriko bestak

Buruilaren 10etik 14ra. Xehetasunak 39. orrialdean.

ETXALAR

Urritzokietako bestak

Irailaren 14an, 18an eta 21ean Santa Krutzak. Xehetasunak 17. orrialdean.

DONEZTEBE

Besta tikiak

Irailaren 16an eta 17an. Bi egunez hainbat ekitaldi.

Ospakizunak

DONEZTEBE

Basurde peña motorzalearen urteurrena

Irailaren 17an eta 18an.

Nire aukera



Laurendi ZELAIETA

Oizko gaztea

«Bestak denonak dira eta denok lagundu beharko genuke»

Oizko gazte saltsero bat». Horixe erranez aurkeztu digu Laurendi Zelaietak bere burua. 20 urte ditu eta kontatu digunez, gurpilekin eta motorrarekin lotutako guztia maite du: «motorrean eta kotxean ibiltzea gustatzen zait, rallyetara joatea...». Gaineratu digunez, «ahal denean, rallyetan kopiloto ere ibiltzen naiz, Urdazubiko Iban Blancorekin». Gaztetxoa zela laxoa txapelketetan aritu zen, baina orain, txapelketak utziak ditu: «lagunartean arratsalde batez jokatzeko plan polita da, eta herriko haur eta gazteak laxoan ari direnean ere hurbiltzen naiz, baina jokatzera baino gehiago ikustera». Errugbia ere probatu zuen, 16 urterekin, baina orain bertze zaletasunak ditu. Lagunekin egotea eta besta egitea gustuko duela ere aipatu digu eta laster hasiko diren herriko bestak ere atsegin ditu, nola ez: «kanpoko jenderik ez da izaten, baina herriko jendea biltzen gara, zahar eta gazte, denok elkarrekin besta egiten dugu eta herri giro polita sortzen da». Oizko bestetatik ekitaldi bat aukeratu beharko balu, herri bazkariarekin geldituko omen litzateke: «gosaririk hasten gara eta goizetik giro polita izaten da». Hala ere, bada bestetan faltan somatzen duen zerbait ere: «lanerako borondatea. Jendeak ideiak ematen ditu, baina eskua botatzea gostatzen zaio. Bestetako lanak soziedadek egiteko ohitura dago, eta horrela segitzen du». Eta berak badaki zertaz ari den, Oizko Elkarteko juntan baitago: «16 urterekin bazkide sartu nintzen eta 18 urte nituenetik juntan nago». 50 bat bazkide omen dira guztira eta aurten gazte gehiago sartu omen dira juntara. Beste begira, ahalegin berezia egin dute aurten: «Udalarekin eta herri-tarekin, denek elkarrekin zerbait egiten saiatu gara eta ea zerbait ateratzen zaigun». Berak garbi baitu «bestak denonak dira eta denok lagundu beharko genukeela». Gainerakoan, herriarekiko duen maitasuna ere agerian gelditu zaio. Oizko txoko politen bat aukeratzeko eskatuta, «Ezpeldegia», erantzun digu, eta etorkizunera begira zein asmo dituen galdetuta, honela dio: «orain bezala, segitu nahiko nuke eta posible bada, hemendik mugitu gabe».

«Etorkizunean, orain bezala segitu nahiko nuke eta posible bada, hemendik mugitu gabe»

Azokak

SARA

Ekoizle, artisau eta sortzaileen azoka

Ortziralero 16:30etik 20:30era frontoian.

Artisau, sortzaile eta komertzianteen azoka

Astelehenero 09:00etatik aitzinera plazan.

Kirol hitzorduak

ARESO

IX. Mendi Martxa

Irailaren 4an. 21 kilometro eta 1.250 metroko desnibela duen ibilaldia. Xehetasunak 30. orrialdean.

IGANTZI

XXVI. Mendi Bizikleta Ibilaldia

Irailaren 4an. Helduentzako bi ibilbide aukeran, 09:00etan abiatuta. Haur eta koxkorrentzako ere ibilbidea, 10:00etan abiatuta. Xehetasun gehiago 19. orrialdean.

SARA

Sara Korrika lasterketa

Buruilaren 10ean 12 kilometroko lasterkaldia, 17:00etan abiatuta.

LEITZA

Plazaolako naturbideen maratokia eta maratoi erdia

Irailaren 11n. Xehetasunak 29. orrialdean.

ZUGARRAMURDI

'Bidea 2016' ekimenaren baitan ibilaldia

Irailaren 17an ailegatuko da Euskal Herria mendiz mendi zeharkatzen duen ibilaldia, Donostia 2016ren barne.

BAZTAN

Mendigoizaleen ateraldia

Irailaren 17an eta 18an ateraldia Pirinioetara.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Pisuak salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobilizatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurrik behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobilizatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 59.900 euro. ☎646 774117.

ETXALAR. Etxea salgai. Herri erdian. Dena berri beharra. Bajera, 2 solairu eta ganbara. Solairu bakoitza 102m². Etxe ondoan baratzea 460m². ☎680 331073.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

LESAKA. Logelak errentan emateko, astelehentik ortziralerara, irailetik aurrera. Bakoitza bere komunarekin, telebistarekin eta sukala

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

dea erabiltzeko aukerarekin. ☎948 637862 / 678 855056.

IGANTZI. Pisuak errentan emateko herri erdian. Sukaldia, egongela, hiru logela, bi komun eta trastelekua. Bi balkoi ederrekin, hagitza argitsua. Mobilizatua eta sartzeko prest. ☎620 997794/948 637948.

ERRATZU. Hiru logelako pisua errentan emateko, sukaldia eta egongela. Bi balkoi eder eta despejatua. Oso eguzkitsua. Oinarrizko altzairuak bakarrik. Zatoz ikustera. ☎659 786952.

IRUÑEA. Azpilagaina auzoan, 2 unibertsita-

teetatik gertu dagoen 3 logelako pisua alokairuan. Dena eraberritua. Interesatuak telefonoz deitu. Kontratuarekin. ☎608 287273.

URDAZUBI. 2 pisu errentan emateko, Dan-txarinea ondoan. Bat sukaldia-egongelarekin, logela bat, bakoia eta trasteroa, 46m², eta bestea sukaldia-egongela, bi logela, balkoia, terraza eta trastelekua, 85m². Toki lasaia. ☎690 388134 / 948 599045.

ELIZONDO. Saskaitz Plazan hiru logelako etxebizitza hornitua errentan emateko. 90 m² erabilgarriak. Argitsua eta zabala. Berri-

tu, berehala sartzeko prest. Igogailuarekin. Gas propanoren galdara, termostatoarekin, ur beroa eta berokuntzarako. ☎658 758173.

IRUÑEA. Unibertsitate ondoan hiru logelako pisua errentan emateko, ikasleentzat. ☎685 153665.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

BERA. Pisuak errentan hartu nahi dugun 2 neska arduratsu gara, mobilizatua eta egoera onean. Biak lanean. 400 euro. ☎627 086071 / 663 420685 (deitu 20:00etatik aitzinera).

ELIZONDO eta INGU-RUAN. Neska bat alokairuan hartzeko logela bila. ☎631 568882.

DONEZTEBE. Irailetik aurrera errentan pisua behar duen neska gaz-

te bat naiz. Ekainaren amaiera arte egongo nintzateke. ☎634 402040.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

Pisukide bila Bilbon. Le-sakako 3 lagun, 4. pisukide bila. Pisuak Santutxu auzoan, 4 logela, 2 komun, sukaldia eta egongela ditu. Leioako kanpuse-ra joateko autobus eta metro geltokia etxetik bi minututara. ☎697 656619/ 677 721685.

GARAJEAK/LOKALAK

salgai

DONEZTEBE: Zazpi-gurutze auzoan 39 m²ko garajea salgai. ☎676 965394.

LANA

eskaintzak

On-line lanean aritze-ko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

Neska bat behar da **UI-tzamako jatetxe batean** abuztuan eta irailean lanerako. ☎667 252373.

IGANTZI. La Villa jate-txean zerbitzaria behar da, barran eta mahaia zerbitzatzen esperientzia duena. Sukaldari laguntzailea ere bai. ☎634 592788.

IBARDIN. Zerbitzari bat behar da Mendi Mendi Benta jatetxerako. Irailetik abuztuan arte. ☎616 108035.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(abuztuaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 36 €

Zerri gizena
1,323 € kiloak.

Zerramak:
0,680 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16

1.koa 3,93
2.koa 3,75

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 140,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 120,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,03/3,13
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,40
8-10 kilokoak: 4,80/5,20

LANA
eskariak

**BAZTAN ETA INGU-
RUAN** neska lan bila. Haurrak eta adinekoak zaintzen esperientziaduna. Haurrak edota adinekoak zaintzen lan eginen nuke interna edo orduka. ☎664 149530.

Gizonezkoa lan bila. Baztan eta inguruan lan egiteko. Peoi eta mendi lanetan esperientzia daukat. Horrelako lanetan eta beste arloetan ere (ostalaritza, industria...) interesatua. ☎631 629486.
**BAZTAN eta INGU-
RUAN mutil gazte lan bila.** Zurgintza ikasketak eginak eta praktikak. Nekaritza lanetan esperientziaduna. Edozein lan sektoretan interesatua lanerako eta ikasketako prest eta gogoz. ☎635 017866.

**BAZTAN eta INGU-
RUAN emakume arduratsua** interna moduan adinekoak zaintzeko lan bila. Orduka behar izanez gero ere lan egiteko prest. ☎644 471128.

Neska gazte bat haurrak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎638 337882.

**ELIZONDO eta INGU-
RUAN** lan bila. Garbiketant, haurren zaintzan eta ostalaritzan esperientzia.

Horrelako lan arloetan edo besteren batean lan bilaketan. ☎631 568882.

Sukaldaritza zuzendaritza ikasketak egin dituen 21 urteko mutila lan bila, Bortziriak edota Malerreka zonaldean. ☎697 908008.

**BAZTAN eta INGU-
RUAN** mutila lan bila. Edozein sektoretan (industria, peoi, mendi lanetan...). Finkoa edota orduka. ☎680 701132.

**LESAKA edo INGU-
RUAN** Olaztiko gazte batek, euskara ikasketako helburu bakarrarekin, bere burua eskaini nahi du asetz baserriko lanetan aritzeko (asteartetik ostiralera bi egun hauek barne), janari eta gela baten truke. Nahitaezkoa tratua ona. ☎628 440156.

ANIMALIAK
salgai

Bi txakurkume salgai, aita eta ama ehiztari onak. Txertatuak eta desparasitatuak daude. Hiru kolorekoak dira. 3 hilabete dauzkate. ☎609937127.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (TUURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

ANIMALIAK
oparitzeko

2 hilabeteko zakurkumea oparitzeko, ardi zakurra eta labrador arrazaren nahasketa. ☎948 510224.

DENETARIK
salgai

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 m luze, borobila. ☎948 585036.
Haritz egurra salgai, Donezteben. 40 euro tonan. ☎686 314036.



ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



744 484 361
erran
Mendialdoko Abiltzateak

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0

VW TOURAN AUTOMATIKOA
2012 ETA 2013KOAK

VW GOLF 2012
AUKERA! - 100.000 KM

RENAULT KANGOO 2012
5 ATE ETA PORTOIA

Irun-Iruña errepidea
N-121-A. 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa erran.eus en

IRAGARKIA
2 aldizkaritan interneten **10** EURO

EGUTEGI PERTSONALIZATUAK

Urte osoan eskura izateko!



Mahai gaineko egutegiak
Modelo ugari aukeran
Trokeltatuak,
paper edo PVCzkoak...



Paretan jartzekoak
Kontsultatu neurriak
hilabeteak ilargiekin,
euskaraz, elebitan...



Posterrak
Neurri handikoak
A1, A2, A3
paper lodian



Sakelekoak
55 x 85 mm
66 x 96 mm
Izkin borobilduak

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Doneztebeko **ARITZ GOÑI** IGUZIAGIRREK uztailaren 25ean 3 urte bete ditu. Familia guztira- ren partetik, zorionak bitxo!!!




Elizondoko **EÑAUT OTEIZA LARREK** 6 urte bete ditu. Auniz urtez eta muxu haundi bat familiaren partetik.



JOANES eta **IRATIK** urteak bete dituzte abuztuaren 4 eta 25ean. Zorionak, urte askotarako eta besarkada bana familiaren partetik.



UXUE BARAIBAR OSKOZEK 2 urte bete ditu uztailaren 23an. Zorionak Arantzatik ataxki, amaxki, osaba, izeba, Egoitz eta Ekiñeren partetik.



Amaiurko **XANA MUJIKA ELIZALDEK** abuztuaren 16an urte bat bete du. Auniz urtez familiaren partetik eta muxu bana Etxalarko 3 lehengusuen aldetik!!



Arantzako **IZARO LANDA IPARRAGIRREK** 2 urte bete ditu abuztuaren 4an. Auniz urtez eta muxu haundi bat etxeko sorgintxoari familia guztia- ren partetik.




ENEKO VALVERDE LEIZA lesakarrak 5 urte beteko ditu irailaren 2an. Zorionak familia guztia- ren partetik.



Berako **OLATZ PAGOLA ROMAK** 10 urte bete ditu abuztuaren 26an. Auniz urtez guapa. Muxu bat Mila eta Amaia- ren partetik.




AINEREK 6 urte beteko ditu irailaren 10ean. Auniz urtez eta muxu haauuundi bat familia guztia- ren partetik! Egun eder bat pasa!




Berako **ALAIN ZELAIETA BERASATEGIK** 10 urte beteko ditu irailaren 3an. Zorionak eta besarkada haundi bat familia guztia- ren partetik.



Zorionak Doneztebeko **OIER BELARRA** eta Zubietako **NAROA ELIZALDERI** abuztuaren 26an eta 30ean urteak bete dituzte eta. Muxu handi bat Ezkurrako eta Doneztebeko familiaren partetik eta bereziki; Nahia, Ekhi, Ainhitz eta Enaitzen partetik. Prestatu berendu goxoa!



Zorionak Legasako **MARENI** abuztuaren 19an urteak bete du eta. Zorionak! Zubietako familia eta bereziki; Nahia, Janire, Aimar, Maddi, Enaitz eta Naroa.



Leitzako **ARKAITZ LOYARTE OLANOK** urteak bete ditu abuztuaren 29an. Zorionak artista! 9 muxu handi Ugaitz, aitaxo eta amatxoren partetik. Segi horrela.



Zorionak Zubietako **EKHI** eta **AINHITZ** MARIKURENARI irailaren 7an 3 urte beteko dituzte eta. Zorionak Zubietako eta Ezkurrako familia guztia- ren partetik eta bereziki Oier, Nahia, Xiker, Enaitz eta Naroaren partetik. Prestatu berendu goxoa!!!



Abuztuaren 19an eta 30ean **MARENI** eta **NAROA** bi lehengusina hauek urteak bete dute. Zorionak Legasako familiaren partetik, bereziki Nahiaren partetik.




Leitzeko **JUNE URKIOLA MARIKURENARI** 4 urte bete ditu abuztuaren 24an. Zorionak eta muxu bat ahizpe Lide eta izeba Birjin partetik!



Urdazubiko **ZUHAITZ BAZTERRIKA MASKOTENA** eta **PABLO IRAZOKI OLAIZOLA**, Zugarramurdiko esku pilota txapelketan parte hartu dutenak. Zorionak bikote eta segi horretarako. Landibar auzokoan partetik.



Urdazubiko **PABLO IRAZOKI OLAIZOLARI** zorionak eta muxu pila bat! Zugarramurditik sorgin baten partetik.



Ettxeko gizon- txoak abuztuaren 28an 3 urte bete ditu. Zorionak **AIEKO!** Berroeta eta Narteko familia eta bereziki aitaxo, amaxo eta Eider.



Zorionak **ENARA!** Abuztuaren 31n 4 urte beteko dituzu, ongi pasa eguna eta prestatu bizkotxo goxoa! Zure familia.



Arantzako **LARRAITX GOÑI ARANGUREN** katutxoak 2 urte bete ditu abuztuaren 23an. Milaka muxu Arantzako eta Lesakako familiaren partetik.



Doneztebeko **OIER LOPEZEK** irailaren 4an 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guztia- ren partetik.



Etxalarko **ARITZ LARBURU ELIZALDEK** irailaren 16an 5 urte beteko ditu. Auniz urtez familiaren partetik eta ongi pasa zure eguna- an!!!



Igantzioko **AINARA HITA ARANGUREN** sorgintxoak jada urteak bete du abuztuaren 23an. Muxu eta besarkada haundi bat Igantzioko eta Lesakako familiaren partetik. Baina bereziki zure ahizpa Olaia- ren partetik: muxu txurritxu!!!



Irailaren 5ean **OIER** eta **BEÑAT ERRO MUJIKAK** 14 urte beteko dituzte. Zorionak! Auniz urtez eta besarkada haundi bat familia guztia- ren partetik.

hemen agertu nahi duzu?

argazki soila 5 EURO
argazki bikoitza 10 EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

Zorionak zure gizona- ren gizona- ren hait!!!

egin zure erosketa erran.eus en

Festarik festa zuekin!

Bidali argazkiak eta IRABAZI SARIAK!

744 484 361

erran.eus
Mendialdeko Albisteak
ANIMATU!

LASER-DEPILAZIOA

Depilazio sistemarik berritzaileena...

ZUNTZ OPTIKOZKO LASER-DIODOA

- 
- **Eraginkorra**
 - **Minik gabekoa**
 - **Azkarra**
 - **Kontaktu bidezko hotza**

- Bera - Xarma Estetika Zentroa | 948 630 904
- Elizondo - Jaimerena ile-apaindegia | 948 581 270
- Doneztebe - Arrate Estetika Zentroa | 948 450 286
- Lesaka - Gemma Estetika Zentroa | 948 638 004

ttipi txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus



**ZOZ
KETAK**

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Koldo Gartxitorena Arraztoa
DONEZTEBE
Buatxabal - Kamiseta bat
Leoncio Goñi Arregi
ORONÓZ-MUGAIRI
Donostiako Aquariuma - 2 sarrera
Blanca Verdu Irigoien
URDAZUBI
BKZ Abentura - 2 tiket Arroila
Aitziber Sagastibelza Baleztena
LEITZA
Irrisarriland - 2 sarrera
Xabier Urreaga Etxenike
ELBETE

668.
aleko
irabazleak



LOTE BAT
MARTIKO
www.martiko.com



2 tiket

PENDULOA
BKZ ABENTURA
www.navarraabentura.com



LIBURU BAT + DVD BAT
LANKU
www.lanku.eus

GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera
Heldu bat eta gazte bat

KAMISETA BAT
ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



2 SARRERA
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



- Lur eta Amets
Euskal Herriaren historia
Uxue Alberdi
Patxi Peláez

elkar
www.elkar.eus

**DES
KON
TUAK
%**



LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan

KATEA-BIKE

BERA | %5, konpuketan



FOTO MENA

ELIZONDO | %10, kopia digitalean

ttipi-ttapa

LESAKA | %10, esketan

**JUAN J.
PICABEA**

DONEZTEBE | %10

LEITZAKIROLAK

LEITZA | %5, 30€tik gora